

Kooperatibismoak erantzuteko ordua

- **Iheslariak** Bide-orriaren aurrerapausoak eta oztopoak
- **Abrako dragatze proiektua** Itsas hondoko kutsadura tonaka zabalduko dela salatu dute
- **MacDonald's** Zergatik duten amonio hidroxidoa hanburgesek
- **Moskuko Urrea** Irungo kultur eta gizarteko aro emankorrena erretratatu du Juanma Sarasolak
- **Larrun** Herritarren konposta

ARGIAren eskutik

SDB kantaldirako sarrerak preziorik onenean

SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT ESTITXU PINATXO
ALEX SARDUI MIXEL DUCAU

URRIAK 26 HERNANI
UDAL PILOTALEKUA-21:30etan

Sarrera:

10€

(ARGIAren eskatuta)



Eskuratu zure sarrera ARGIAren:

☎ 943 37 15 45 / denda@argia.com

* Sarrerak amaitu arteko eskaintza mugatua


A&M KULTUR
PROMOTORA
619421153





Azaleko argazkia:
RAUL BOGAJO /
ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko urriaren 27a, 2.388. zenbakia

ASTEKO GAIA

IHESLARIAK Iheslarientzat irtenbide dena arazoa da bi estatuentzat. MIKEL ASURMENDI / 4

PERTSONAIA

JOSUNE IRABIEN: «Lan txikietan murgildu behar dugu, premia handiak asetzera ez gara-eta iritsiko». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA Amonio hidroxidoa hanburgesetan. URKO SAENZ DE BURUAGA / 16

INDIA Goiz bat Lakshmiren etxean. MARI ARTANO / 18

IRITZIAREN LEIHOA

AGERIKO ETA EZKUTUKO ESKUIN MUTURRA

ASIER BLAS MENDOZA / 20

GUREAK KOLDO ALDALUR / 22

MOZORROAREN MOZORROA ANDONI MUJICA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Beste euria. KATTALIN MINER / 22

BERTSO BERRIAK Fagor itolarrian. AITOR SARRIEGI / 23

ZIRTAK Maskara eman. IRATXE ESNAOLA / 24

ERDIKO KAIERA

MOSKUKO URREA 1983-1993 garaia gogoratu, mitoak amilaraztea helburu. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 26

CROWDFUNDING Kulturako murrizketak ez genituzke denon artean estali beharko. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 30

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE, G. UBEDA GOIKOETXEA / 32

MUSIKA OLATZ KORTA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Artearen akuilu. MYRIAM GARZIA / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ABRAKO DRAGATZE LANAK Urtetako kutsadura askatuko den beldurrez. UNAI BREA / 40

AINHOA ELICES: «Enpresek frogatu dute euskaraz egin daitekeela». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

FAGOR ETXETRESNAK Porrota eta itxaropena.

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 46

● Fagor eta alboko eraginak. JUAN MARI ARREGI / 47

● Langileentzat eta enpresarentzat bideragarritasun bila.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 48

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Iheslariantzat irtenbide dena arazoa da bi estatuentzat

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak (EIPK) prentsaurreko bidez aurkeztu zituen bere mintzakideak ekainean. Hil horren 15ean, berriz, *Elkartasun hatsa* agerraldi publikoa egin zuen Miarritzen. Mintzaidetzako kide Xabier Miguel Ezkerra usurbildarra eta Oxel Azkarate arrasatearrarekin egin dugu berba. Kolektiboaren egitasmoaz eta ordutik gaurrera egin duten bideaz jardun dugu Hendaia Txingudi badiari begira, Bidasoa ibaiaren ertzean.

| MIKEL ASURMENDI |

HOGITA HEMEZORTZI URTE dira Xabier Miguel Ezkerrak Usurbiletik ihes egin zuela; 60 urte beteko ditu laster. Oxel Azkaratek berriz, duela hamar urte laga zuen bere herria. Arrasaten jaio zen 1982an. Ia 30 urteko adin alde dute. Iheslarien ezaugarrien lagin bat baino ez da. Biek bizitza “normala” egiten dute. Hots, lanean ari dira. Kolektiboaren kide gehienek ordea, ez dute eskubide hori. Munduan 500 euskal iheslari politiko inguru daudela uste da: “Kopurua zehaztea ezinezkoa zaigu, sasia zenbat jende dagoen jakitea oso zaila baita. Errepresio izugarria –izan– da”, esan digute solaskideek.

***Elkartasun hatsa* Miarritzen**

Iheslari hauek diotenez, Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak (EIPK) lan eskerga egin zuen iragan bi urteetan *Elkartasun hatsa* ekitaldia antolatzeke: “Uneon ari garen bezala jardun ezean, ez genuen irtenbiderik ikusten. 30 urte luze daramagu ihes. Iheslariok ilunpeetatik atera behar genuen. Gure bizimodua ez da herrian egiten dena, ezta hurrik eman ere. Zailtasunak ditugu gure errealitatea plazaratzeko –internet edota hedabideak erabiliz ere–, gure egoera sozializatzeko behar handia daukagu. Lan horretan aritu gara azken bi urteetan”.

Ondorio hau atera dute: iheslarien arazoari ezin zaio irtenbiderik eman iheslariak mintzatu gabe. Horretarako iheslariak berek norekin eta zertaz hitz egin behar duten zehaztu dute euren bide-orrian. *Elkartasun hatsa* ekitaldia bide-orria gizarteratzeko oihu

indartsua izan zen, berealdiko urratsa abiarazi duten konponbidean. Miarritzeko auzapez Didier Borotrak lagundu zituen ekimena gauzatzen, besteak beste. Ideologia eta gizarte esparru anitzen sostengua jaso zuten: “Ez genuen bakarrik gure arazoaz jardun nahi, euskal auziaren prozesu integrala landu beharra azaldu genien prozesuan laguntzen ari zaizkigun eragile guztiei”. Euren hitzetan, auzia argira ateratzea lortu dute iheslariak, baita bizi duten errealitatea gatazkaren ondorioa dela ongi azaldu ere. Prozesu integralaren faktore nagusiak ezagutzera eman dituzte, lehen eta azken iheslaria etxera itzultzeko

asmoa agertuz. Gatazkaren funtsa eta ebazpen moduak bide-orrian idatzita daude. Abiaturua eta helburua honela laburtzen da: “Herriaren aktibazioaren eta herri eragileen arteko akordio bidez lortuko da irtenbidea”.

Erantzunik ez

Hedabide zenbaitek iheslariak ekainean eman zuten prentsaurrekoaren interpretazio zurrunezia egin ote zuten pentsatzen dute biek: “Alegia, iheslarien bide-orria baliagarria da, baina irtenbide integrala aurkitzeko estatuek ETArekin hitz egin behar dute. Frantziako nahiz Espainiako gobernuak nolabaiteko ‘gaitasuna edo aukera’ eman diegu guk egin nahi duguna blokeatzeko. Ez diegu aukera hori berretsiko ordea. Guk prozesua Euskal Herriarekin eta Euskal Herriarentzat egin nahi dugu, argi eta garbi”.

Bide eginez ezagutzen omen dira etsaiak. Bost hilabete iragan ondoren kolektiboak

Hegoaldean lortu ez den zer bait lortu dute Iparraldean. Hainbat entitatek eta pertsonalitate politikok prozesu politikoarekiko elkartasuna adierazi diete iheslariari



Oxel Azkaratek eta Xabier Miguel Ezkerrak diotenez, "batzuek errelatuaren gaiari kutsu erlijiosoa erantsi diote, eta gero gaia politiko bihurtu. Galtzaileak eta irabazleak nahi dituzte. Errelatu horretan ez gaituzte topatuko. Ez dezagun gure burua engaina".

erantzuna jaso du: "Gure proposamenak, konponbideak, haientzat arazoak dira. Frantziak Jokin Aranalde iheslariari emandako erantzuna horren lekuko. Espainiara kanporatzeko agindua eman du epaileak –abokatuek helegitea jarri diote aginduari, kasazio deia eginez–. Bi iheslariak diotenez, gatazkaren konponbidean –iheslari guztiak etxeratzeko– berebizikoa da euren parte-hartzea; nork bere herrian parte hartuz prozesu integrala bururaino eramateko. Bide horretan baina, iheslarien aurkako jazarpena etengabea da, poliziak astero iheslari bat atxilotzen du. EIPK-k ez du estatuekin jazarpen-erantzun dinamikan sartu nahi. Hartara, prozesua estatuen jokoaren eta erritmoaren arabera gartzen baita.

EIPKren bide-orria *Herria dugu arnas* egitasmoan jaso da (www.herriaduguarnas.org). Aieteko Adierazpenaren ondoren zabaldu zen prozesuan parte hartu nahi dute: "Euskal auzia justizia trantsizionalaren ikuspuntutik landu nahi dugu. Prozesua ez da hutsetik hastea". Bide-orriko hiru puntu azpimarratu dizkigute: "1. Afera judizialik ez duten iheslariak lagundu behar ditugu etxeratze bidean. 2. Afera judizialak dituztenen –asko torturan oinarritutakoak– dosie-

rrak baliogabetu behar dira. 3. Beste dossier guztiak era trantsizionalean aztertzen hasi behar dira".

Gaixoeak eta adinekoek dute lehentasuna. Munduan barrena deportatuak direnei irtenbidea eman behar zaiela diote: "Deportazioak egoera bereziak sorrarazi ditu. Duela 30 urte iheslari piloa atxilotu eta beste herrialde-tara eramane zituzten. Horiek ez dute inolako sententzia juridikorik jaso. Beren egoera ez dago definituta, epaitu gabe daude egun. Etxetik kanpo horrenbeste urte horrela egoitea kondena ere bada". Espainiako Estatuak erabili duen torturak lotura zuzena dauka kolektiboko kide askoren egoerarekin: "Jende askok ihes egin du beldurrez, beste batzuek haien lagunek torturapean egindako adierazpenengatik. Egoerak sorrarazitako 'espazio hori' aztertu behar da legalitatearen ikuspuntutik. Preskribatuta dauden kausak bertan behera utzi behar dira".

Salbuespen neurri bereziak bertan behera uztea beharrezkotzat jotzen dute, konponbidean duintasunez bizi eta garatu ahal izateko. Horren ondoren, iraganean gertatu denaren errelatua egiteko prest ei daude iheslariak. Kontakizuna gatazkaren konponbide soziala bilatzeko funtsezkoa baita, euren hitzetan.



GAIZKA IROZ

Shengenekoa Ituna

EIPKren bide-orrian torturaren gaiak berezko aipamena dauka. Testuaren arabera bi estatutak Shengenekoa Itunaz baliatzen dira. Nazioarteko legedian oinarrituta, euroagindua bermatzen du itunak. Berbarako, europarrek Turkiako Estatuak ez dituela giza eskubideak bermatzen diote. Turkia ez dago Shengeneko Espainia bai. Nazioarteko erakundeek Espainia Turkia beste bider kondenatu dute torturengatik. Turkia ez dago Shengenekoa Ituneko ordea, interes ekonomikoengatik. Espainia Shengenekoa Ituneko babesten da, europarren interes ekonomikoak tarteko. Hartara, errelatua egitean Espainiak bere legea urratzen duela agertzea berebizikoa dela diote iheslariak: “Espainian torturatu egin baita”. EIPKren egitasmoa sostengatzen duten eragileak –Miarritzen egon ziren alderdi politiko frantziarretako kideak barne– tortura kasuak agerraraztearen garrantziaz jabetu direla diote. Hegoaldean ez dagoen ezaugarria dago Iparraldean, ezohikoa: “Hegoaldean lortu ez den zerbait lortu dugu hemen. Hainbat entitatek eta pertsonalitate politikok prozesu politikoarekiko elkartasuna adierazi dute. Estrategikoki eta helburuekin ezker abertzalearekin ados ez dauden sektoreak dira, atipikoa da horregatik. Prozesuaren alde kokatzea eta aktiboki parte hartzea erabaki dute. Desberdintasun hori azpimarratzekoa da”, dio Miguel Ezkerrak. “Bide-orria eskaini eta zehazki zer egin behar

**Euskal Iheslari
Politikoen
Kolektiboak
Elkartasun hatsa
agerraldi publikoa
plazaratu zuen
ekainaren 15ean,
Miarritzen.**

**“Herriarengan dugu konfiantza,
berak emango du neurria. Herri
harresia eraikitzea eskatzen
dugu –balduin eta herri honek
sinesten badu etorkizunean–
behar dugun babesa erdiesteko,
irtenbideko jokalekua
ahalbidetzeko”**

Oxel Azkarate

dugun galdetu ziguten eragileek: Guk –diosku Azkaratek– aktibazio soziala gizarte maila guztietan behar dugu”.

Jakitun dira eskaera oso generikoa dela, ez da erraz zehaztea ordea. Alta, gauza bat garbi dute: “Ez dugu erresistentzia terminoetan jardun nahi. Gizarte eragilean laguntza behar dugu. Geuk egin behar dugu bidea, eurak integritasunaren parte direla adierazi diegu”. Estatuek trabak ezartzen dituzten arren, iheslariak oso pozik daude eman dituzten urratsekin. Eragileek –Bake Bidea eta Lokarri, besteak beste– gomendioak luzatu dizkiote EIPKri: “Gomendioak lagungarriak izan daitezke herriarekin bat egiten badugu. Esaterako, errelatua egiteko. Gu prest gaude. Baina ez dugu euren eskaera exijentzia modura hartu nahi. Behartuak, alegia. Ez. Gurea da nahia eta beharra. Herri honetan zer gertatu den, zer egin dugun eta zer egin duguten kontatu nahi dugu. Ez dugu inolako beldurrik”, dio arrasatearrak.

Iheslariak saihestu ezin izan zuten egoera batera iritsi dira. Baina, gatazkaren beste aldean jardundakoak ere halaxe izango direlakoan daude, diote biek ala biek: “Errelatua ezin izango da egin, alde batekook ez bagara beste aldekoaren esparruan kokatzen. Eraiki nahi dugun jendarte elkarrekin eraiki behar dugu, beste modurik ez dago. Purgatoriora joatekotan, denok joan behar dugu”.

Iraganean gertatu hainbat gauza onartzeko zailtasunak badaudela irizten dute, baina horiek bi aldeetan daudela

diote: “Ezker abertzale osoak hori barneratu ta dauka, ETAk barne; baita guk ere. Esateko dugun guztia kontatzeko prest gaude, baita gertatutako gauza asko ekidin ahal genuela aitortzeko ere prest. Ez daukagu arazorik. Beste gauza bat da, errelatu horretan egia osoa ez kontatzea, eta gero, berau baltsamiko balitz bezala agertu nahi izatea. Batzuek errelatuaren gaiari kutsu erlijiosoa erantsi diote, gaia politiko bihurtu dute. Galtzaileak eta irabazleak nahi dituzte. Errelatu horretan ez gaituzte topatuko. Ez dezagun gure burua engaina”, dio usurbildarrak.

Gatazkaren ebazpenerako bideak

Prozesua Aieteko Adierazpenaren bigarren puntuan blokeatuta dago. Presoen eta iheslarien auzien konponketak prozesu politikoa geldiarazi du. Espainiako eta Frantziako estatuen jarrera begi-bistakoa da: auzia ebazteko prozesua blokeatu dute. Espainiako hainbat gizarte sektorek eta politikariek beren aurkako ekimena balitz bezala hartu dute prozesua. Alabaina –iheslarien ustez–, pazientziaz jardun behar da, gatazka ebazteko prozesuaren lehen fasean gaude. Euskal Herriak bere eskubideak irabaztean guztiok irabaziko dugun ideia zabaltzen ari da poliki-poliki. Gartsu eta tentuz mintzatu zaizkigu: “Herri honek pentsatu behar du iheslariak zabaldu dugun bidea herriaren beraren borrokaren arabera garatzen joango dela. Herria dugu arnas –eta berme– prozesua bururaino eramateko, konfiantza osoa dugu herriarengan. Berak aurkituko du prozesua gauzatzeko irtenbidea. Ezin zaie estatuei prozesua blokeatzeko aukera eman, are gutxiago herriak aukera hori eman. Baldin eta herri honek bere etorkizunean sinesten badu, prozesua garatuko bada, herriaren ekimenarekin

“Errelatua egiteko, biharko eraiki nahi dugun jendartea eraikitzeko, ezin izango dugu egin alde batekook ez bagara beste aldekoaren esparruan kokatzen”

Xabier Miguel Ezkerra

batera izango da. Adibidez, herri harresiak eraikitzea eskatzen dugu presoek eta iheslariok behar dugun babesaren erdiesteko, soluzio-bidean urratsak eman ahal izateko, irtenbiderako jokalekua ahalbidetzeko”.

ETAren armen entrega

Iheslarien ibilbideak askotarikoak omen dira, pertsona eta militante gisara. Solaskide hauek desarmearen gaiaz badute iritzia horregatik: “Desarmearen aurrean morbo gehiegi dago. Herriko jende arruntaren hala nola eragile batzuen aldetik. Areago, militante batzuek, agian, modu dramatikoaz aztertzen dute gaia. Aitor Zubillaga burkideak dioenez ‘ETAk herriarengandik jaso zituen armak, bada, arazorik ez dago herriari berari itzultzeko, herria bera arma bilakatu dadin’”.

Hori esanda ere, desarmea gauza teknikoa dela diote biek ala biek: “Sinbologia politiko izugarria dauka, armen erabilera politikoa baita. Armak ez dira ezer, fabrikatu eta erosi egiten dira. Armen sinbologiak badu garrantzia, nork bere sinbologia politikoa eman nahi baitio. ETAk adierazi duenez, desarmearen fasea ez da berehala zertuko. Erakundeak prestasun ona agertu du, baina dioenez, estatuek parte hartuz gero –nazioarteko komunitatea tarteko delarik–, desarmea azkarragoa eta arrazionalagoa izango litzateke”. Irtenbide arrazionalena hori da, baina estatuek ez dute onartu nahi. Irtenbide hori estatuentzat biharko problema delako: “Estatuek nahiago dute gatazka usteltzen uztea konpontzea baino. Horregatik, kontuz! Desarmean aldebikotasunaren zain bagaude prozesua ustel daiteke”, dioskute. Zentzu horretan, Arnaldo Otegi *Armi* egunkarian egindako elkarrizketa eta ETAren komunikatua sintonian ikusi dituzte gure solaskideek.



Liburu azoka

Bilbon, urriaren 25etik azaroaren 10era Arendalean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Kontzientziak bakeaz armatu

ETA ERAKUNDE ARMATUAK deliberatu zuen duela bi urte borroka armatuaren amaiera. Hitza hitz: emandako hitza konplitu du. Askok txalotu dute erabaki hori euskal gizartean, European eta mundu guztian. Kaiolan zegoen bakearen usoa bere hegala luzatzen hasi zen, denok so geundelarik ea haize onik izanen zuen.

ETArri lotuak dauden emazteek eta gizonek, baita Euskal Herriko parte handienak ere, segitzen dute fermuki bake bideari lotzen. Iheslarien kolektiboak bateratu ditu munduan zehar barreiatuak dauden anai-arrebak. Aho batez mintzatu dira, mezu sakona igorritz gizarte osoari. Miarritzen sentitu izan genuen Euskal Herri berriari buruz abiatzen ari ginelako: bortizkeria eza, elkarrizketa eta aniztasuna dira eraiki behar den gizartearen oinarriak, giza eskubideen errespetua izan daitezkeen biharko etxearen oinarriak.

Presoek ere haien urratsak egin dituzte zentzu horretan, milaka herritarrek hainbat manifestazioetan parte hartuz, jakinean denon esku dagoela Bakearen Etxearen eraikitzea. Etxea sutan zegoelarik, auzoak etortzen ziren sua itzaltzera, nahiz eta haserre izan etxetiarrekin. Hemen ere, atzo etsai zirenek beharko dute eskuz esku lan egin. Alde batetik, estimatzekoa da gizartearen partetik egin izan diren entseguak biktima guztiei hitza emanez, errepresioak sorrarazten dituen zauriak oroitaziz, baita ETak sorrarazitako oinazeak ere kontuan hartu izana. Memoria zainduz, ametsa askatzen da. Alta, negargarria da Madrilen eta Parisen jokoa. Ez dute haien *logiciela* aldatu: ukatzen

dute Euskadi bake bidean dagoela. Errepresioaren bidea segituz, Bakearen usoari hegala moztu nahi dizkiote? Ez dute irabaziko zeren eta eskuak esteka daitezke, baina bihotzak ez! Estimatzekoa da nazioartetik etorri zitzaizkigun bake begiraleen pazientzia eta nahikaria. Nahiz

eta haizeak kontrakoak izan, segitzen dute sostengatzen iheslarien, presoek eta milaka euskaldunen partetik bizirik dirauen bakearen erronka. Estimatzekoa da ere nazioarteko auzapezek eskaintzen dizkiguten sostengu mota guziak!

Ez da dudarik, eskuen desarmatzearen ondotik, euskaldunek beharrezkoa izango dugu kontzientziak bakegintzan oinarritzea. Inoiz baino gehiago beharrezkoa izango dugu denon mobilizazioa trabak gainditzeko. Bakea ez zaigu gaineratik eroriko, gure baitatik sortuko baizik. Bakearen bidea denon artean dugu irekiko. Gizarte osoari dagokio bakearen usoari kaio-la irekitzea.



Mikel Epalza
Zokoako itsas omonierra

Beren hitzetan, desarmeari dagokionean, Espainiako Estatuaren jarrera –eta haren aldekoek, EAJrena barne– batetik poetikoa da eta bestetik trabagarria.

ETAren azken agiria

Uda ostean prozesuan aurrerapausoak emango zirela zabaldu zen bolo-bolo. Besteak beste, ETAren komunikatu berria eta Estrasburgoko auzitegiak *Parot doktrinari* buruzko ebazpena ematea espero ziren gogo handiz. Zorrotz egin digute berba: “Prentsan, oro har, izugarritzko fribolitatea ikusi dugu, baita zenbait euskal eragileren aldetik ere. Hauek errazki erortzen dira prozesuaren aurkariak presiopean; Itsaso Atutxa izan edo Jonan Fernandez izan. Egiaztatze Batzordeak agiri batean ‘irailera arte itxarongo dugu, irailean ez badago ezer gu etxera goaz’ esan zuen. Iraila pasa da. Ez du ezer esan, beraz, pentsatu behar dugu prozesuak jarraitzen duela. Berriz diogu, guretzat irtenbidea dena estatuentzat arazoa da”.

Egiaztatzeko Batzordeko kide Ray Kendal (Interpoleko buru ohi britainiarrak)


horrela esan zuen Baionan: “Azken 50 urteetan gatazken konponketan ez dugu ikusi estatuen aldetik halako jarrerarik”. Miguel Ezkerrenaren aburuz, bi estatuak beren interesen arabera ari dira: “Desarmea, desarmea, desarmea, diote. ETAren azken komunikatuan oso ondo adierazita dago aurrera begira nondik jo behar dugun estatuen estrategia saihesteko eta prozesua aktibatzeko. ETak prest dagoela esan du berriz ere. Hiru militanteak [Josu Urrutikoetxea, David Pla eta Iratxe Sorzabal] Oslon atxilotu zituztenean bidea zabaltzen ari ziren. Desarmea teknikoki prestatzen ziharduten Egiaztatze taldearekin. Bertako gobernuak kanporatu zituen eta prozesua geldiarazi. ‘ETA no reniega de su pasado’ ondorioztatu dute”. Azkaratek berriz, honela dio: “Batzuek ez dute ETAren aldetik espero zutena jaso. ETak, berriz, beste urrats bat eman du ‘prest gara, gatazkaren gordinak gure herrian utzi dituen ondorio latzak eta zauri sakonak aintzat hartzeko’ esanez. ETA urratsez urrats aitzina doa eta gu ere prest gaude aurrera joateko”. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



«Lan txikietan murgildu behar dugu, premia handiak asetzeraz ez gara-eta iritsiko»

Euskaltzaindiaren jardunaldiak Araban orain bi urte. Hainbat eta hainbat parte hartzailearen artean, bi gonbidatu aski berezi. Laudioko eta Amurrioko alkateak, euskara irakasleak izanakiak. Josune Irabien dugu Amurrioko Udalaren agintari gorena.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Eta zein da euskara irakasleak alkatetzaraino egin duen bidea?

22 urte nituela hasi nintzen EAJn militatzen. Barruko lana, betiere. Lehenengo, modu pasiboan; gero, aktiboago. Hainbat etapa bete ditut alderdian bertan ere. Hasteko Uri Buru Batzarreko kide izan nintzen. 2003an hasita, Arabako Batzar Nagusietan parte hartu nuen. Euskara irakasle ari nintzen Gasteizen, euskaltegi batean, eta, aldi berean, Batzar Nagusietan. Zaila zen biak egitea, baina egin genuen. Eta Batzar Nagusiak, huraxe bai, benetako eskola! Bitartean, udal hauteskundeak egiten ziren, eta Amurrioko EAJko Pablo Isasi izan genuen herriko alkate hogeita lau urtean. EAJk ahaleginak eginagatik ere, ezin alkatetzaz jabetu! Hala-ko batean, duela dozena erdi urte, bestelako profil baten bila hasi ziren, alkatetzarako aurkezteko, esan nahi dut. Niregana jo zuten eta aurkeztu nintzen. Oso-oso gertu ibili ginen, baina Isasik irabazi zuen orduan ere. Duela bi urte, berriz, eta herriko jendearekin Zabaltzen izeneko parte-hartze prozesua –oso prozesu polita, egia esatera– burutu eta gero, alkatetzan amaitu nuen. Ez betiko gelditzeko asmotan, hala ere. Ziklo bat osatzen ari naiz, ez besterik.

2011tik hona zaitugu Amurrioko alkate.

Baina ez nintzen berehala hasi lanean, haurdun bainengoen.

Lana, politika, haurgintza... Kontziliazioa...

Bati baino gehiagori gertatu zaio, nire ezagunen artean ere. Nik 1993an bukatu nituen ikasketak. Krisi garaia zen orduan ere. Hainbat lan txiki eginez ibili nintzen, benetako lan bat izan gabe. Bitartean, lan txiki haiekin batera, hainbat prestakuntza ikastaro egin nituen. Horrela joan zitzaidan denbora, haurrak izatea gerorako utzita. Zoritzarrez, emakumearen kasuan zoritzarrez, gerorako uzten ari gara amatasuna, bitartean beste lan batzuk egin behar ditugulako, eta lan haiek egiten sekula amaitzen ez dugulako. Nire kasuan, berandu arte utzi nuen haurra izatea, eta 41 urterekin izan dut umea. Oso

NORTASUN AGIRIA

Josune Irabien Marigorta (Amurrio, 1970). Urtarrilaren lehenengoan jaio zen, gaueko 00:30ean, etxean, praktikanteak amari bihotz emanik. Politika Zientzia ikasketak egin zituen 1993an, Bilbon, eta orduantxe ikasi zuen euskaraz. Euskara irakasle izan zen Gasteizko Hegoalde euskaltegian zazpi urtez, eta Urduñako euskara teknikari 2004tik 2011ra, Amurrioko alkate izateko hauteskundeak irabazi zituen arte. Tartean, bestelako lan txiki mordoak egin zuen, baita futboleko jokatu ere, oraingo Athletic taldearen aurrekoan. Arabako futbol hautatzaile ere izana da. Eudel-eko exekutibako kide da.





esperientzia polita, zalantzarik gabe, gaur hain berandu arte utziko ez nukeena. Gaurko emakumeari horixe gertatzen zaiola ikusi dut: edo gazte izaten ditu umeak, edo gero-ko uzten du.

Gizonok horrek dakarren egoeraz konturatu gabe.

Nik ez dakit zer dabilen gizonen buru barruan, baina badakizu, gizonek garrantzi gutxiago ematen diote hainbat gauzari, kar, kar, kar. Baliteke emakumeok gauza asko, edo gehiegi, lotuta izatea haurra izan baino lehen. Auskalo! Dena dela, ikaragarri ari naiz haurra disfrutatzen. Senarra ere dakien euskara apurra erabiltzen saiatzen da, eta etxean gune euskalduna osatu dugu. Tira, egin daiteke, zalantzarik gabe. Ziur asko, kasu askotan gertatzen den bezala, dakien euskara apurra ez da hain apurra, dezente baitaki, berak uste duena baino gehiago...

Hizkuntza ikasten ari den ikaslearen uste okerra, dakiena baino gutxiago dakiela.

Uste baino gehiago daki jendeak, bai. Zenbait gizarte esparrutan ez da erraza, beharbada, baina familiak bestelako babesa ematen duela uste dut. Horrela esaten dute, ezta? Ume batekin errazagoa dela euskaraz egitea, umeak ez duelako zuzentzen. Ez du zuzenketak egiteko ohiturarik, eta horrek

Aiaraldea.com

"Proiektu berriari ekin diote bailaran.

Aiaraldean du izena, hamasei orrialdeko euskarazko hamabostekaria. Aiaraldea.com-ekin hitzarmena sinatua dugu, bailarako udal guztien inplikazioa lortu zuten iaz, eta interneten ari dira harrezkero. Baina orain paperekoa egin dute".

libre hitz egiten laguntzen du. Nik bai, zenbait zuzenketa egiten dizkiot senarrari, berak niri halaxe esanda, baina ez dut askorik zuzendu beharrik, oker gutxi egiten ditu eta. Familia giroan, akatsak egiteko lotsa eta beldurrik gabe, lasaiago hitz egiten da. Esate baterako, inkestak egiten direnean, "euskaldunak" eta "ia euskaldunak" aipatzen dituzte. Bada, "ia euskaldunen" esparru hori hain da zabala, denetarik dago hor. Arakutzen hasiko bagina, ikusiko genuke telebista ikusi eta ulertzen dutela, partidak entzuten eta esatariak esaten duena ulertzen dutela, hitz egiteko ahalmena dutela... Uste baino baliabide gehiago dutela. Ez daukat zalantzarik.

Orain bi urte Euskaltzaindiak Araban egin zituen jardunaldietan, Laudioko alkate Natxo Urkixo eta zu zeu nabarmendu zineten bertara ziren agintarien artean.

Alkate ez ezik, Amurrioko Udaleko euskara arduraduna ere banaiz. Arduradun politikoa esan nahi dut —euskara zinegotzia, nahi baduzu—, ez euskara teknikaria, hori Beñat Mendi-guren baita. Behin baino gehiagotan esan didate, ea zertan ibili behar dudan nik euskararen arduradun. Nik, ordea, uste dut benetan adibide eta eredu izan behar dugula agintariok, nahitaezkoa zaigula zeharkako ikuspegia. Gazteriaren eta emakumearen

Etsigarria

“Egunero pertsiana irekitzea ez da erraza guretzat, baina langabezian dagoenari aukerarik ezin emanda ibiltzea oso gogorra egiten zait. Erakunderik hurbilena dela diote udala, eta ezin lagundu izatea... Madrilek ezartzen dizkigun arauak ere hor dira, jendea zuzenean ezin dugula kontratatu diote arau horiek. Beharrak ikusten dituzu, ezin haiei erantzun... Etsigarria da”.

gaietan bezala. Nik behatokia dut hemen: egunean udaletxean zenbat idazki sartzen den ikusten dut, zein sartzen den, edo irteten den, euskaraz... Perspektiba handia ematen dit alkatetzak, horren gaineko erabaki bat hartu ahal izateko. Jakina, euskararen mundutik nator eta barneraturik dauzkat hizkuntzaren tresnak, eta horrek erraztu egiten dit euskararen munduarekin bat egiten, normaltasunez. Aldaketak gertatzen ari dira, naturaltasun osoz, ezer behartu gabe.

Tokian tokiko agintari gorena euskaltzale izateak ez ote dio euskarari, prestigioa ez ezik, zentraltasuna ematen?

Bai, baina berez, horretan saiatzen ibili beharrik gabe. Eta, zalantzarik gabe, errazago ikusiko ditu euskararen gabeziak eta indarguneak. Agintari euskaltzalearen kasuan, garrantzizkoa izango da euskararen nortasuna azpimarratzea, modurik naturalenean, normaltasunez, baina azpimarratzea.

Zertan dira zure lan-harremanak Amurrioko udaletxean? Hizkuntzari buruz ari naiz, bistan denez. Zein leku du euskarak?

Zenbait bilera euskaraz egiten ditugula esan dezaket. Eta lankide euskaldunekin, ez dago zalantzarik, euskaraz egiten dugu. Dela idazkariarekin, langile batekin... Euskaldunekin, euskaraz. Aurreko agintaldian ezinezkoa izango zen hori. Gainerakoan, lan arloaren arabera, euskaraz edo gaztelaniaz egiten

dugu. Gizarte eragileen arabera ere bai. Dena dela, bada galdera bat behin baino gehiagotan egiten duguna, lehen egiten ez zena: “Bilera hau, euskaraz ala gaztelaniaz?”. Lehenago ez zen horrelako aukerarik. Baina dena ez da polit eta eder...

Ez dago arrosarik arantzarik gabe...

Horixe. Oraindik gabezia handiak ditugu euskaraz idatziari dagokionean, adibidez. Elebitan egiteak bitan jardutea esan nahi du, lana zaigu, eta, beraz, hobetzeko tarte handia dugu, bai barrura eta bai kanpora begira egiten den komunikazioaren arloan.

Aurreko alkatearen aldia ez zegoen hainbat lan euskaraz egiteko aukerarik. Zure aldi honetan, bai. Eman dezagun hurrengo legealdi bat, bi urte barruko hauteskunde ondoak, edo sei urte barrukoak. Alkatea euskaltzalea ez bada, atzera egingo du euskarak Amurrioko Udalean?

Ez dut uste. Nire burua euskararen normalizazio prozesuaren barruan ikusten dut. Uste dut nire ondotik etorriko denak bide beretik joko duela. Ez zait buruan sartzen bestela egin dezakeenik. Atzerapauso handia izango litzateke. Amurrión, Laudion, Urduñan, Artzeniegan, Okondon... euskaldunak dira alkateak, jaunak eta andreak. Joera hori geroztik da.

“Geraezina”.

Horrela ikusten dut nik. Jakina, joera politikoari lotuta dago hori. Aiarako eskualdea abertzalea da, bai ala bai. Ez dago aukerarik. Era batera edo bestera, hemendik Bilboraino, bi aukera baino ez dituzu une honetan, EAJ edo Bildu. Eta horrelaxe iraungo du. Eta hauteskundeak datozenean, haien hautagaientan, haien zerrendetan, beti izango da euskaltzaleren bat, ziur. Alderdiek beste bideren bat hartuko balute, porrot egingo luketela iruditzen zait.



Bartolo
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

AZKEN HITZA

Haurraren lehen esaldia

"Hitz solteak esatetik esaldiak egitera jauzi egin zuenean, 'ama, kalera goaz?' esan zuen lehenengo. Beraren lehenengo esaldia! Korrika idatzi nuen koadernoan: 'Lehenengo esaldia egin du gaur, eta gainera euskaraz!'. Poza, jakina".



Amurrioko alkate andreak baditu euskara ez beste diren kezka, lan eta egitekoak.

Bai, badituenez. Asko dira egitekoak eta buruko minak. Larriena, krisiak ekarri duen egoera. Garai txarrean hasi genuen legealdia. Krisiak gogor jo du gizartea, hor da langabezia eta bizitza-kalitatearen aldaketa. Eta Udalak berak duela urte batzuk baino diru baliabide eskasagoak ditu. Askoz eskasagoak. Aldiz, kudeaketari dagokionez, baliabideak urritu direla ahal den gutxiena nabarmendu dadin saiatu behar dugu. 2008an 25 milioi euroko aurrekontua zuen udal honek. Orain, ez gara 14 milioi kudeatzera iristen. Bost urtean ikaragarri jaitsi dira diru baliabideak. Eta, hala ere, zerbitzuei eusten saiatu behar dugu, eta eusten ez baldin badiegu, galera ahal den gehiena txikitzen, behintzat. Jendeak badaki zein den egoera... Udal honek diru asko izan du, asko, eta garai batean zenbait azpiegitura handi egitera jo zuen Amurrioko Udalak. Alkate sartu eta hiru milioiko zorra zegoela ikusi genuen, eta hura ere ordaindu egin behar! Ordaintzen ari gara oraindik. Baina hortxe dago gakoa, diru gutxirekin zerbitzuak mantentzea.

Azpiegitura handien zama handiagoa.

Gaur egun ez gaude azpiegitura handiak egiteko garaian. Halako kalean, edo espaloian, harlauza aldatu behar dela, alda dezagun. Beharbada ez zen lehenago egin azpiegitura handietan buru-belarri lanean ari ginelako. Gaur egun, harlauza aldatzen ibiltzea dagoki-

gu. Eta eskertzen digu jendeak! Gauza txikiak dira, baina lan txiki horietan murgildu beharra daukagu, premia handiak asetzeraz ez gara iritsiko.

Donostian izan zinen, Bizikidetzaren Aldeko Nazioarteko Alkateen Bileran.

Bai, izan nintzen. Uste dut aurrerapausoa dela. Lokarriko koordinatzaileak, Paul Riosek esan zuenarekin gelditu naiz ni. Esaten zuen ETA amaitu dela eta ematen duela ez dugula horretaz hitz egiten jarraitzen. Berak zioen mugimendua sortu behar dela, eta hitz egin eta hitz egin, hau ez delako itxi oraindik. Irlandaren kasua aipatu zuen, hango prozesu luzea, urteak iraun zituen. Ezin gara geldirik egon, hitz egin behar dugula... Uste dut euskal gizarteak bakea nahi duela, benetan. Baina alderdi politikoek markatzen dute bide-orria, eta askotan, alderdi politiko batzuek agintzen dutena betetzen du jendeak. Beharbada, paper handiegia jokatu dute alderdi politikoek, onerako eta txarrerako, eta alderdiak fragmentatuta daudenez, euskal gizartea bera ere fragmentatu dute, nolabait esateko.

Alderdi politiko bateko kide zaitugu.

Bai, eta nire barrutik ari naiz gogoeta egiten... Fragmentazioa ez da, benetan, euskal gizartearena, alderdi politikoaren artekoa baino. Donostian bildutako alkateek horixe azpimarratu zuten, besteak beste, alderdi guztiekin hitz egiteak duen garrantzia. Baina udal mailan, bozeramaileen batzordean bilduta, alderdi bateko bozeramailea jaiki eta aretotik irte ten baldin bada, ez dago hitz egiteko aukerarik. Eta, hala ere, horretan saiatu behar dugu, hitz egiten, denon artean hitz egiten. Udal mailan lan handia egin litekeela uste dut. ■



Euskara

"Gaingitu gabeko ikasgaia nuen euskara. Unibertsitatera aurretik, konturatu nintzen ez nuela euskaraz ikasteko aukerarik. Unibertsitatera heldu nintzenean, bi talde ziren, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Batzuek aukera egiteko modua zuten. Nik ez. Ez nuen zalantzarik izan. Euskaraz ikasten hasi nintzen Bilbon bertan, Bilbo Zaharra euskaltegian, baina nire ogibidea euskara izango zela pentsatu gabe".

Euskal talde guztiak dira gureak



Joseba Vivanco | Jon Ormazabal
Natxo Matxin | Joseba Iturria
FUTBOL TALDEEN KRONIKARIAK

■ Bakoitzak bere koloreak sentitzen ditu,
■ baina euskal talde guztiak dira gureak.
Zatiketak zabaldu nahi ditu zenbaitek gurean,
baina gure herriak ez ditu behar eta haien
aurka borrokatzen gara egunero.
Inork ez du gure ordeztu egingo.

Hori lortzeko baliabideak behar ditugu.

helburuak lortzeko
GURE BALIABIDEAK

GARA

Amonio hidroxidoa hanburgesian

McDonald's-ekin loturiko informazio bat bolo-bolo zabaldu zen sare sozialetan, duela pare bat hilabete. Konpainiak errezeta aldatu behar izan omen zuen, Jamie Oliver sukaldari britainiarrek frogatu ostean McDonald'seko jatetxeetan saltzen den haragia jangaitza dela, amonio hidroxidoz tratatzen dela argudiatuta.

| URKO SAENZ DE BURUAGA |

JAMIE OLIVERREN BIDEO BAT da denaren iturburua. Bideoan, Oliverrek AEBetako *fast food*-eko jatetxeetan eta eskoletako jantokietan zerbitzatzen den haragiaren osaera azaltzen du. Bere esanetan, haragiaren industriako konpainia handiek animalien hondarrak erabiltzen dituzte, normalean gizakien menuetatik baztertu eta txakurren janaria egiteko erabiliko lirakeenak. Haragi hori oso merkea da, haragi kopuru handia behar duten enpresentarako ezin hobea. Baina arazo bat dauka: ez da giza kontsumorako egokia. Izan ere, salmonella eta E. Coli bezalako bakterien presentzia kontrolatzeko amonio hidroxidoa gaineratzen zaio haragiari. Eskandalua, ezta? Bada, konposatu hori janarien gehigarri bezala onartua dago, E-527 izendapenarekin. Elikagaien industrian, azidotasuna zuzentzeko sarri erabiltzen den egonkortzailea da amonio hidroxidoa, aipaturiko bakterien hazkuntza oztokatzen baitu.

Hemen sortzen da elikagaien segurtasunean dagoen eztabaidarik ezagunenetakoa: agintaritzak onartzen badu, ez ote da ona izango? Hau nahiko erlatiboa da. Industrian ehunka gehigarri erabiltzen dira hamaika helbururekin: kontserbatzaileak, egonkortzaileak, koloratzaileak, antioxidatzaileak... Elikagaien segurtasunaren ikuspegitik, gehigarriak, onargarriak ez ezik, beharrezkoak ere badirela esan genezake. Adibidez, esan

E. Coliren prebalentzia arriskutsuki handitzen duen sistema eratu dugu. Baina behien elikadura aldatu ordez, amonio hidroxidoa botatzen diogu haragiari

bezala, E. Colirekin intoxikazioak saieheteko. Era berean, amonio hidroxidoa elikagaietan erabiltzearen ondorioak oso argi ez badaude ere, berez gai toxikoa dela gogoratu behar da.

Non dago muga?

Gehigarrien erabilera defendatzen dutenek diotenez, elikagaiekin irensten dugun gai toxikoen kantitatea ez da nahikoa gure osasunean eragiteko. Gainera, elikagaietan naturalki aurkitzen dira eta beroarekin lurruntzen omen dira. Hala ere, gehigarri batzuen arriskuei buruzko ikerketa ugariaren emaitzek ez dute hori esaten, haragi onduetan erabiltzen diren nitratoekin gertatzen den moduan. Eta zehazki amonio hidroxidoaren kasuan, AEBetako Elikagai eta Sendagaien Agentziak bere webgunean onartzen du ez dela amonioaren konposatuaren segurtasun atalaseari buruzko ikerketa esanguratsurik egin.

Baina itzul gaitezen McDonald's-en kasura. Dirudienez, egia da bere hanburgesen errezeta aldatu duela... AEBetan. Baina konpainiak adierazi duenez, ez da Oliverren akusazioengatik. Korporazio handien ohiko diskurtsoa, esango luke baten batek. Baina, egia esan, ez dugu salaketarik aurkitu, eta aipaturiko bideoan ez da zuzenean McDonald's izendatzen.

Bideo dokumentatuagoa eta esanguratsua da, ordea, *Food, Inc.* dokumentala. Interneten ikus daitekeen lan honek elikagaien industriaren funtzionamendua erakusten du, kontsumitzaileen, animalien, enpresen eta langileen ikuspegitik. Industria horren aurka aldarria izan arren, E. coli 0157:H7 bakteriak intoxikatuta hil zen haur baten amaren borroka kontatzen du. Michael Pollan idazleak dokumentalean esaten duen esaldi batek oso ondo laburtzen du afera: "Elikagaien



industriaren sistemak efizientzia handitzea bilatzen du beti, baina efizientziarantz ematen den pauso bakoitzak bestelako arazoak sortzen ditu. Industriaren konponbidea ez da izaten arazo sistematiko bat duenero atzera egin eta huts egin duena ikertzea, baizik eta erremedio teknologiko bat asmatzea, sistema berarekin jarraitzeko". Hots, E. Coliren prebalentzia arriskutsuki handitzen duen sistema eratu dugu. Baina arazo hori konpontzeko behien elikadura aldatu ordez –sistema aldatu ordez–, amonio hidroxidoa botatzen diogu haragiari.

Hala egiten du Beef Products Inc.-ek, AEBetan egiten diren hanburgesa gehienek haragia ekoizten duen enpresak, eta McDonald's-en hornitzaile denak (orain arte, behintzat). Eta puntu honetan "AEBetan" azpimarratu behar dugu. AEBetako esplotazioak ikustea besterik ez dago, herrialde horren eta

McDonald's-ek ez ditu animaliak pilatzen, ezta langileak esplotatzen, ezta Amazoniako basoa suntsitzen. Ez baitu berak egiten, bere hornitzaileek baizik.

munduko gainontzeko herrialdeen ezberdintasunez jabetzeko, baina egia da, era berean, alde hori gero eta txikiagoa dela.

McDonald's-ek ez ditu animaliak pilatzen, ezta langileak esplotatzen, ezta Amazoniako basoa suntsitzen. Ez baitu berak egiten, bere hornitzaileek baizik. Hau guztia sistemaren arazoa da, eta sistema honen azken erantzuleak geu gara. Animalien askapena aldarrikatzen dugu, kapitalismoaren gehiegikeriak salatzen ditugu, baina haragia nahi dugu eguneroko bazkaltzeko, eta merke, gainera.

McDonald'si delitu asko egotzi dakioke, baina gehienak sistemakoak dira. Badago, ordea, kontu garrantzitsu bat, konpainiaren nortasun zeinua dena. Kontu larria iruditzen zait eta ez dakit zergatik jarraitzen dugun hau onartzen: haurrak zabor-janera erakartzeko erabiltzen dituzten oparitxoak. ■





Zientzia + Dibertsioa







eureka!
zientzia
museoa
kutxa gizarte ekintza

www.eurekamuseoa.es / 943 012 478

INDIA

Goiz bat Lakshmiren etxean

Mari Artanok Indiako etxeetara sartu eta bertako emakumeen istorioak ekartzen ditu *Sareedunak eta Sareegabeak* blogean. Oraingoan, Euskal Herriarekin lotura duen Lakshmi-reneko atea jo du.

Testua eta argazkiak:

| MARI ARTANO |



Familiako argazkia, Lakshmi eta Eshana erdian direla.

INDIAKO OHITURAK jarraituz, oinetakoak erantzi eta sartu gara etxera Eshana eta ni.

—Namaste.

—Namaste.


Indiako ohiturak ahantziz muxuak eta besar-kadak eman dizkie Eshanak etxekoei. Hoztasunez jasotzen dituzte mimoak. “Badakit ez zaiela gehiegi gustatzen baina nire ohitura da eta onartu egiten dute”.

Eshana kataluniarra da, baina ez da atzeritar arrunta: Indian jaso zuen izena erabiltzen du —“desira” esan nahi du sanskritoz—, eta gutxitan elkartzen da gainontzeko atzeritarrekin; zurien planetatik alde egin eta aterpea bilatu du bere familia indiarrean. Duela sei bat urte iritsi zen Eshana Punera, Gobernuz Kanpoko Erakunde batean lan egitera.

Orduan ezagutu zuen familia, GKEko fundatzailearen bitartez. Eta ordutik ia astero bisitatzen ditu. Nik ere ezagutu nahi nuen bere familia indiarra, eta eraman nau azkenean.

Lakshmi da ama, aitarik ez da ageri eta hiru seme-alaba gora eta behera dabilta. Beno, hirurak ez, seme gazteena kieto dago lurrean, Rangoli bat osatzen ari da etxeko aldare aurrean. Koloretako hareaz zoruan egiten den marrazkia da Rangolia.

Eta iritsi zait kafea, eta galderak egiteko txanda. “Zergatik zuri eta niri bakarrik? Beraiek ez al dute kaferik eta gailatarik nahi, Eshana?”. “Guk gaur barau eguna dugu, Navratri festaren hasiera delako, horregatik ari naiz Rangolia marrazten, eta bederatzi egunez ez gara aulkietan eseriko, zoruan



bakarrik”, aldare aurrean marrazten ari den gazteak erantzun dit, Akshay da bera.

Berriketan hasi eta amak seme baten falta duela konturatu naiz. “Eta non da ba?”, “Spain” amak, “Donostian!” Eshanak, “Hara!” nik. Orduan etxeko alaba bakarra, Chandra, koko bat hartu eta hura apaintzen hasi da aldarean, “jainkosaren irudia egingo dut kokoarekin”. Durga jainkosaren omenez ospatzen dituzte egun hauek, eta harrigarria izan da pausoz pauso kokoari Durgaren itxura nola eman dion: lehenengo margotu, gero begiak eta ahoa jarri, gero jantzi, gero belarritakoak... zenbat filigrana, zenbat detaile batzuetan; eta zer nolako soiltasuna besteean: amak esan digu “jana?”, guk “ez, lasai”, eta amak berriz “ondo da”.

Eta pixkanaka dena kontatu didate: familia Karnataka-tik (India hegoaldeko estatua) etorri zen Punera lan bila. Hemen jaio ziren semeetako bi (lau dira guztira), etxerik ez eta kalean bizi ziren denak. Gizonak edan egiten zuen eta zorrak sortu eta amak familiatik bota egin zuen. Semeetan azkena, Akshay, ttipiegia jaio zen eta ez zuela bizirik iraungo esan zioten. Orduan Uilhas (falta den semea), mutil koskorra, atzerritarren kafetegietara joaten hasi zen, anaiarentzat esnea erosteko diru eskean. Hala, egun batean Uilhasek Juleni eskatu zion dirua. Eta Julenek dirua baino zerbait gehiago eman zion.

Uilhas Donostiara iritsi zenekoa

Julen donostiarra da, eta sarri bidaiatzen zuen Indiara. Kaleko haurren egoerak kolpatuta Asha-Kiran fundazioa sortu zuen 2002an —hau da Eshanak lan egiten duen GKEa—. Eta sasoi horretan ezagutu zuten elkar Julenek eta Uilhasek. Hasteko, Julenek bidaia bat proposatu zion Uilhasi eta eskean ibiltzen ziren beste bi haurri: hondartzara

Ezkerreko irudian, Uilhas Zumaiaiko Itzurun hondartzan. Eskuinean, kokoz egindako Durga jainkosa.



eraman nahi zituen, opor batzuk oparitu nahi zizkien kaleko ume horiei. Lakshmik, amak, ezezko borobila eman arren semea Goa-ra joan zen, itsasoa ezagutzera, eta amak zortzi egun negarrez pasa zituen semea lapurtu ziotela pentsatuz. Baina itzuli zen Uilhas, pozik.

Julen Uilhasen familia laguntzen hasi zen apurka, etxetxo bat, dirua, jatekoa eta lana lor zitzen. Atzerritarra gero eta sartuago zegoen familian eta orduan egin zuen bigarren proposamena: “Lakshmi, zure semea nirekin eraman nahi dut bizitzera”. Eta amak hasieran ezetz. Baina Uilhasek ere desio zuen eskaintza, kaletik mundu berri batera joatea. Horrela iritsi zen Uilhas Donostiara.

Eta amak zenbat negar, bere semetxoaren faltan... baina sarri etortzen da Uilhas amarenera, urtean bizpahiru aldiz. Eta amak errietan egiten dio zigarroa erretzen duelako, eta errietan egiten dio Juleni ere erretzen uzten diolako. Baina Uilhas pozik dago eta osasuntsu, amak badaki: “Hemen jarraitu izan balu ez luke aurrera egingo, bere lagunak kartzelan daude, edo hiesak jota, edo ez daude...”.

Jaso eta eman

Lakshmik eta bere familiak, beren xumean, ez dute ezeren faltarik: “Lehen ez genuen ezer: ez dirurik, ez etxerik. Nik eraikuntzan egiten nuen lan eta egunean hogeita hamar errupia (0,5 euro baino gutxiago) irabazten nituen asko jota”. Orain etxea dute eta ikasteko lekua ematen die ilobei eta auzoko haurrei etxean. Uilhasek Asha-Kiran fundazioan lan egiten du. Hau ez al da jasotako eskuza-baltasuna ematearen eredua? ■





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Ageriko eta ezkutuko eskuin muturra

INKESTEK diotenaren arabera, Frantzian 2014ko Europako Parlamenturako hauteskundeetako garailea izan daiteke Fronte Nazionale (FN), botoen %24arekin. Berriak dimentsio handiagoa hartu du Brignoles-eko hauteskunde kantonaletako bigarren itzulian FNk garaipena lortu duelako botoen %53,90arekin. Halere, hau ez da kontu berria, eskuin muturra Europako hainbat herrialdeetako parlamentuetan eta gobernuetan egon da, eta badago.

Eskuin muturraren diskurtsoa eta estrategia politikoa ezaguna da. Arazo sozial bat detektatu eta horretan oinarritzen dira beraien ideologia atzerakoia eta autoritarioa zabaltzeko. Adibide sinple batekin esplikatuko dut funtzionamen-

miko ahulena dutenen artean gain ordezkatuak daudenez gero, ondorioz gain ordezkatuak egongo dira ere bai laguntza hauek jasotzen dituztenen artean. Beste behin eskuin muturrak soluzio erraza proposatuko du: "Lehenengo bertakoak". Erraza da ulertzen eta eraginkorra ere bada beraien estrategia, izan ere, horrela delinkuentziaren arazo soziologikoa sakontzeko egur gehiago botatzen zaio suari eta horrek gaitzespen handiagoa sortzen du etorkinekiko.

Arazo sozialek sor dezaketen itsukeria arazo soziologikoa diagnostikatuz eta honi aurre egiteko politikak martxan jarritz gailentzen da. Baina, Europako gobernuak politika egiteko duten gaitasuna eta borondatea eskasak dira, nahiago dute sektore finantzario eta ideologo neoliberalen esanetara jartzea. Horregatik, alderdi konbentzionalak geroz eta gehiago ari dira beren programetan eta diskurtsoetan barneratzen eskuin muturrak aire-ratu dituen mezuak. Orain dela bost urte pasatxo Italiako zentro-ezkerreko liderraren Walter Veltroniak Frantziako FNeko edozein buruzagik egin ditzakeen mailako adierazpenak egin zituen Balkanetako ijitoen aurka. Azkeneko asteetan antzeko adierazpenak entzun ditugu Frantziako sozialisten ahotan ijito bulgariarren eta errumaniarren asentamenduak suntsitzeko erabakiak defendatzeko. Manuel Vallsek, barne ministro sozialistak, zuzenean ijitoak delinkuentziarekin lotu ditu eta hauen inguruan hazi den arazo sozialaren irtenbidea Frantziatik kanporatzea dela adierazi du.

Diskurtso horiek elikatzen dute eskuin muturra, arazo sozialean zentratuz eta arazo soziologikoa ahantziz. Baina noski, ulergarria da, izan ere, gutxiengoak estigmatizatzea pobreak izateagatik edota kultura desberdina izateagatik oso erraza eta erabilgarria da, batez ere, zure ezintasun politikoa estali nahi baduzu edota diru publikoarekin aberasten diren banketxe eta gizon zuri guzti horietaz hitz egiterik nahi ez baduzu. ■



Arazo sozialek sor dezaketen itsukeria arazo soziologikoa diagnostikatuz eta honi aurre egiteko politikak martxan jarritz gailentzen da. Baina, Europako gobernuak politika egiteko duten gaitasuna eta borondatea eskasa da, nahiago dute sektore finantzario eta ideologo neoliberalen esanetara jartzea

dua. Auzo batean lapurreta asko badaude, hori arazo soziala da. Arazo soziologikoa izango litzateke motiboa: zerk eragiten du hainbeste lapurreta egotea? Ordea, eskuin muturrak ez du interesik arazo soziologikoan, bere asmoa arazo sozialek sortzen duten beldurra ustiatzea da erantzun sinpleak eskainiz: kaleetako delinkuentzian gorakada egon bada eta erasotzaileen artean etorkinak gain ordezkatuak baldin badaude, orduan gutxiengo hori estigmatizatu eta guztiak kanporatzea proposatuko du arazo soziala konpontzeko. Modu berean, krisi egoeran gaudenez gero, inoiz baino garrantzitsuagoa da laguntza sozialak areagotzea, baina politika neoliberalak tarteko kontrakoa gertatzen ari da, laguntza sozialak gutxitu baitira. Horrek diru laguntza horientatik konpetentzia sortzen du, eta oro har, etorkinak egoera ekono-



ALBA IRUÑEKO HARRESIAREN AITZI


„Irabazleek dizkietela
garaituei baldintzak
EZARTZEN, eta ez
alderantziz ...”

Albako Dukea
IRUÑEAN 1512an



Koldo Aldalur

KAZETARIA ♦



DANI BLANCO

Gureak

ZEIN DIREN “gureak” bereizten nahiko lan ez, eta beti “etxeakoak” defendatu beharra kazetaritzaren ugerra iruditzen zait; gaitza, baztertu beharrekoa.

Abuztuaren epeletan, *Champions*ari dagokion partida garrantzitsua Realak Lyonen, eta Realzaleak bertako plaza ederrenetakoan elkar harturik. Halako batean, Olympiqueko jarraitzaile bakar bat plaza zeharkatzen hasi da. Festa amaitu da, eta Realzaleena nor den azaltzeko unea heldu. Amestutako unea.

Kolpetik, Realeko *peña* ezagun bateko hogeiren bat lagun hurbildu zaizkio, eta, gehienak begira diren bitartean, hiruzpalau lagun artean eraitsi, eta egurtu egin dute. Plaza handian batzuek ez dute ezer ikusteko batarik izan; beste batzuek ez dakite seguru zer gertatu den; bakarren batzuen ustez, azkarregi bukatu da ikuskizuna; beste batzuen iritzian, aurkako taldeko jarraitzailea izanik, gutxitxo eman diote. Jipoitua izan denari eternitatea baino luzeagoa egin zaio jasandako unea. Beste hainbat lotsaturik geratu dira. Lotsaturik, eta beldurturik, mendekuak logika hartu duelako egoeraren interpretazioan. Erasotzaileak ezagunak dira Realzaleen artean, nahiz eta beraien “balentria” estaltzeko kamiseta txuri-urdinak jertsepean ezkutatu dituzten.

Hurrengo egunetan, belarria luze jarri dut, eta arreta zoli, “gurean” euskaraz eta espainolez aritzen diren komunikabideei. Gertatutakoari buruz aipamenik ere ez. Lausengua, berriz, etengabe: zalego eredu-garria, *Champion*eko jarraitzaileak eredu Europa osoko futbol taldeentzat, harro egoteko moduko uholde txuri-urdina.

Eta betidanik korporatibismoak oinarri ustela duela iruditu zaidalako, ni, lotsatuta. Edo bertan izan ziren kazetariak ez zuten ezer jakin, edo, jakin bazuten, ezkutatu egin zuten “hemengo” zaleen irudi orbangabea ez zikintzeko. Ezer entzun ez bazuten, gaizki, beraien lanari dagokiona delako gertatu dena ezagutzea. Zerbait entzun arren gertatutakoa baieztatu ez bazuten ere, benetan gaizki, komeni ez dena ere azaldu behar delako. Eta zer gertatu zen jakinda aipatu ere ez bazuten egin, are eta gaizkiago, egia ez esatea gezurretan aritzea bezain larria delako.

Baliteke norbaitek zerbait aipatzea, horrela, disimuluan, eta ni ez ohartzea, baina harrituko ninduke.

Dena den, okerreña da saldu nahi diguten gizarte mota baten eredu dela zalego aseptiko hori. “Gureak” beti garbiak dira. Besteak dira beti sestra bila ibiltzen direnak. Frantziar gaztea egurtu dutenak ez zaizkit axola. Errukia da nire barrutik agertzen den sentimendu bakarra haiei begira jartzen naizenean. Min ematen didatenak mutu geratu diren haiek dira. Arrazoiaren erdian kulunkan beti. Kargurik hartu gabe isildu direnak. “Bakeak gehiago balio du” pentsatu dutenak. Ez ote da mikatza izan hurrengo tabernan edan duten zerbeza?

Agian, une batean, neure burua ikusi dut Lyongo plaza hartan. Urrutiegia, erosoegi nire epeltasunean, ondoan gertatzen dena ulertzeko.

Hasi naiz lehen pertsonan idazten. Bukatu beharrean naizen seinale. ■



DANI BLANCO



**Kattalin
Miner**



KAZETARIA

Beste euria

AZKEN URTE hauetan eguraldiarekiko obsesio mediatikoak eraginda edo, iruditzen zait gu geu ere gero eta arduratuago gaudela gure herriko eguraldiarekin. *Pais Txubasko* ere deitzen dio hainbatek sarritan, eta kexaka baina harro errepikatzen dugu gure idiosinkrasiaren parte den nolakotasun hori.

Azken aldian baina, etenik gabeko euri gogorra ari du herri honetan. Arrazoi politiko bustitako ekaitzak jarraitzen du gure gainean. Jada nahikoa labainkorra zen zoru etikoaren gainean zaparradak ez du etenik. Badirudi, euri horri aurre egin nahian aterkiak zabaltzen gabiltzala ere,

ekaitzak haize zakarrez jotzen duela alde bietatik, zirt eta zart. Blai.

Euri erasokorra eraldatu nahian ordea, tantaz tanta itsaso bat osatzen, zubiak eraikitzen, harresiak osatuz, ekaitz ilunari laranja kolore bizia erakusten dabil herri bat.

Eta honi ezin zaio *Pais Txubasko* deitu, ekaitzak izen abizenak baititu, estatu ize-nak, eta ez da gure kontua (bakarrik). Dirudienez, ekaitza ez da berez baretuko, beraz aurre egitea tokatzen da; politikoki libre eta tropikala den Euskal Herria lortzeko bada ere. ■





Andoni Mujika

♦ IRAKASLEA

Mozorroaren mozorroa

ARTIKULUAN ukitzen dudan gaiak, aitortu behar dut, hari ugari duela eta nire iritzia ez dela aditu batena. Agertzeaz jardun nahi dut, pertsonok agertzeko dugun beharraz. Hasteko, uste dut, naturala den jokabidea dela. Tamainan, gure “egoa” eta ziurtasun beharra elikatzen ditu. Barne munduarentzat erreparatzailea den errekonozimendu pertsonalaren orbitan koka daiteke. Neronek ere, beste batzuen artean, motibazio hori senti dezaket, esate baterako, ARGIAN artikulua hau idazterakoan. Jakina, irakurlearen aldetik jasotzen ditudan inputak positiboak badi-ra behintzat. Baina agertzeko beharrianaren eskala zabala da. Mutur batean egongo litzateke pertsona orok sentitzen duen premia “natural” hori, eta beste muturrean, nabarmenkeria agertuko litzaguke; hau da, bere burua nabarmendu ezik hil egiten den pertsona-mota horren kasua, bai, hil. Bigarren aitorpena: amorrua sentitzen dut. Azalduko dizuet.

Nabarmenkeria –neurri barik agertu nahi hori– behar dutenen artean bi azpimultzo ikusten ditut. Lehen azpimultzoan daudenek, ospea, bizi ahal izateko derrigor behar dute, baina ez dute beharrian hori ezkututzen. Premia hori zintzoki bizi dute, eta horrelaxe aurkezten zaizkigu gure aurrean, iruzur barik, *drag queen*ak bezala. Hauek ez naute deus molestatzeko, kontrakoa esango nuke. *Paboerrealak* dira, baina horrela jokatzeko dute disimulatu barik. Bigarren kategoriako exhibizionistek molestatzeko naute, mozorrotuta dabilzan beste nabarmenkeria-

ren *yonkiek*. Kanpo-lotsa eta haserrea eragiten didate umiltasun faltsuarekin distira publikoa biziki desio duten beste hauek. Moralki ez dute egoki ikusten nabarmenkeria, baina nahi ala ez, horixe behar dute, arnasa hartzea beste. Itxura xumez eta umiltasun faltsuz agertzen dira, baina abilezia sofistikatu eta oso landuak dituzte eratzun sozial ezberdinetan eskalatzeko eta posizioak irabazteko. Ez da arraroa izaten, gainera, han eta hemen (kulturan, gizarte mugimenduetan, hezkuntzan, politikan, kooperatibetan...) erreferente bihurtzea. Izan ere, onartu behar da, trebetasun batzuk oso garaturik dituztela.

Bigarren kategoriako exhibizionistek molestatzeko naute, mozorrotuta dabilzan beste nabarmenkeriaren yonkiek. Kanpo-lotsa eta haserrea eragiten didate umiltasun faltsuarekin distira publikoa biziki desio duten beste hauek

Dena den, nagusiki, maletnik gabeko beren buruaren saltzaileak dira; horixe dira batez ere. Ez zaie antzematen, ordea. Hortxe dago artea. Eta ondorio modura zerbait esaten ausartuko naiz: zenbat eta hutsago eduki barne-txalo kopurua, uste dut, orduan eta gose handiagoa dagoela kanpoko txaloekiko. Kontuz. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Fagor itolarrian



DANI BLANCO

Aitor Sarriegi

♦

Doinua: Esne saltzailearena.

Fagorretik eman da berriaren parte geroa zail duela krisia bitarte. Urrutiko ahotsak aspaldi dakarte hemen ere ikusten genuen aparte etxeko sukaldara iritsi den arte.

Aspalditik zetorren usain txar samarra eta baieztatu da zitekeen bakarra. Erabaki okerrak ta hazi beharra... Noiz pasatu ote zen zentzuaren marra? Krisiak soilik ez du isildu oilarra.

Orain hartzekodunen aurre-lehiaketa ta bi mila langile zalantza beteta. Behin izandakoari jarriarik arreta ea ematen zaion tortilari buelta guztiontzat hobea izango da eta. ■



Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Maskara eman

NEW YORKEN sortutako *Guerrilla Girls* kolektibo artistiko feministaren atzera begirakoa dago ikusgai Bilboko Alhondigian. 1985etik hona artearen munduan ematen den emakumeen kontrako diskriminazioa salatzen jardun izan dira gerrilla kideak, museoetan paratzen dituzten gizon-emakume artisten obren presentziari buruzko datu estatistikoak plazaratuz eta bazterketa praktikatzan duten zentroetako arduradunak izen abizenez seinalatuz. Kartelak eta posterrak itsasten dituzte hirian, nortasuna ezkutatu eta hildako emakume artisten ezizenez identifikatu. Edonola ere, benetako sona gorila maskarekin azaltzeak eman die, eta noski, maskarek eragiten duten inpaktuak izan du zerikusia beren ekintzen oihartzunean. Ez alferrik gorilaren mozorroak femininotasunaren irudi normatiboa kordokatzen du lehen begi kolpean. Maskaren eta feminismoaren uztartzearen baliagarritasuna erakutsi du, halaber, Pussy Riot talde feminista punk errusiarrak. Aurpegiak kolore biziko buruberokiz estaliz mundu mailako sona lortu zuten 2012ko otsailean Moskuko Kristo Salbatzailea katedralera sartu eta gitarrei eraginez ama birjinari orazio bat kantatu ziotenean, zertarako eta, Vladimir Putin eta eliza ortodoxoaren arteko harremanak salatzeke.

Duela hilabete pasa bururatu nuen azkenekoz maskara bat. Donostiako Egia auzoko Porrontxo jaien baitan *Poemaskarada* ospatu genuen *lucha libre* mexikarreko maskarak jantzita eta gizakiz osatutako ringean poemak errezitatu genituen. Piztia poetikoak askatzeko saiakera izan zen, gidari izan genuen Ion Olano Carlos sortzaile lagunaren hitzetan. “Aurpegia estalita, askeago sentitu nintzen barrenak biluzteko”, aitortuko zidan beranduago. Niri ere barrenak mugitu zizkidan maska-

rak. Ni oldartsuago bat ernai zitzaidan. Virginie Despentese *Teoria King Kong* entseguan aipatzen zuen antz gehiago duela King Kongekin Kate Moss-ekin baino. Alderdi basak oihu egiten dio emakumetasun pasiboari. Beharrezko zaigu ariketa hori derrigorrean, genero eraikuntzaren aldamioa desmuntatzearen praktika kontzientea eginagatik, hainbat jarrera irakatsik gugan baitiraute. Maskarak gogorarazi zidan domatzea lortu ez duten basakeria dudala barruan. Gogorarazi zidan nire baitako piztiak gauza

asko dituela artean aldarrikatzeko. Kuriosoena da errebeldia hori alderantzizko bidetik bilatu izan dudala. Gardena izatea hobetsi izan dut injustiziei aurre egiterakoan. Gauzak aurrez aurre esateko joera izan dut eta ez ezkutatzekoa, berdin ekintza pertsonal zein kolektiboetan,

maskara gabeko estrategiez ia beti. Alta, maskarekin izan nuen sentipenari erakusketatik erreskatatuta-

ko hitzok gehitzen zaizkio: “Pren-tsak beti izan du gogoia gorilen mozorroak daramatzaten feministekiko eta feministei buruz hitz egiteko. Elkarrizketa asko egiten ditugu idatzizko hedabideentzat, irrati eta telebistentzat, eta beti joaten gara oihaneke jantziaz goitik behera atonduta. Ezin duzu imajinatu ere egin zer esan dezakezun gorila-mozorroa jantzita daramazunean”. Horixe bera.



Eta gehiago. Aldarri egin nahi duen errebeldea zailago da identifikatzen maskarepean. Eta garrantzitsuago, arerioei maskarak ez die uzten gure malkoak ikusten, ezta erresistitzeak tarteka dakarren keinu samina ere.

Animalia otzan nahi gaituzten garaiotan maskarak pizten du piztia. Errebeldia eta poetikotasuna, biak artez batzen dituen Liliana

Felipek honela dio: “Beldur digute beldurrik ez diegulako”. Aurpegia, maskara emanez, ematen dugu basati. ■



Antton Olariaga



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 130 dokumental eskura

Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
CAN: Kutxa hutsa
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathona
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean



ERDIKO KAIERA

MOSKUKO URREA

1983-1993 garaia gogoratuz, mitoak amilaraztea helburu

Gaztetxo zela bere herrian egosi zen saltsa-maltsa hobeto ezagutzeko grinak eraman zuen Juanma Sarasola orduko lekukotza zuzenak biltzera. Bi urtez aritu da buru-belarri, haurren zaintzak uzten zizkion zirrikitu guztiak helburu horretarako baliatu beharrean. Moskuko Urrea. Kultura eta gizarte mugimenduen eztanda Irunen (1983-1993) liburua dugu jakin-min haren emaitza. Banizu Nizukek argitaratuko du aurki, urtea hastearekin batera.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Argazkiak: Juanma Sarasolak bilduak



Temblores rockabilly taldea, Antzaranen.

ADIN JAKIN batetik gorako gehientsuenek ezagutzen dute Irungo Mosku. 80ko eta 90eko hamarkadak puri-purian bizi izan zituztenen bilgune esanguratsua izan zen ofizialki Urdanibia plaza dena, kontuan hartu

beharreko erreferentzia eta epizentro, Euskal Herriko zeinahi bazterretatik erreparatuta ere: hango giroa, hango mugimendua, hango parrandak, tabernak, jendeak, antolamendua. Juanma Sarasola kazetariak garai hartako

35 elkarrizketa, atalez atal

MUSIKA

Mattin Sorzabalbere. Elatzeta, Muerte Subita, Krimental, Anti-Regimen, Kortatu, Baldin Bada, Imuntzo eta Beloki.

Miren-Io Arrieta. Muerte Subita, Krimental. Abeslaria, teklatuak.

Jabier Muguruza. Les Mecaniciens, bakarlaría.

Iñigo Muguruza. Des-Band, Kortatu, Delirium Tremens, Negu Gorriak.

Fermin Muruzura. Zikinbrillo, Kortatu, Negu Gorriak...

Koldo eta Xabi Sorzabalbere. Txalaparta berreskuratu zuten Bidasoa Behereko eskualdean.

Pedro Rodriguez. Caid Deceit, Thor, Leize...

Pablo Susperregi *Katu* Ikusgai, Oihana berbena taldeak, Baldin Bada, The Lumbreras Brothers.

Miguelon Garcia, Rafa Racero, Txemari Leitzza. Anti-Regimen.

Claus Groten. Vomito.

Mikel Garikoitz Errezola. Oihana berbena taldea, bakarlaría.

Karlos Osinaga. Zorrotz, Kashbad, Lisabö.

Aitor Perez. Apurtu.

Juanjo Cabezon. Auskalo, Lasai-Massai.

Manolo Diosdado Racero 'Pinguí'.

Edu Vicente eta Jorge Carrere. Kraddock's, Temblores.

IRRATI LIBREAK (ANGULA IRRATIA). Gorka Berges, Aitor Errazkin Basurko.

IKASLE ETA GAZTE MUGIMENDUAK Xabi Lluia. Ikasle Abertzaleak, Jarrai, Irungo Gazteen Asanblada.

GAZTE ASANBLADAK, OKUPAZIOA, FANZINEAK. Mariano Diez.

DISKODENDA ALTERNATIBOAK

Juancar Garcia Alberca (Bloody Mary) eta Jabier Calvo Sagartzazu 'Jabiolo' (Bertso-Hop).

ANTIMILITARISMOA

Iñaki Martin Camara 'Grillo' Kakitzat.

EKOLOGISMOA

Mikel Estonba. Txingudiren Aldeko Koordinadora.

BERTSOLARITZA

Abel Zabala. Bertsolaría. Xanti Zabala 'Lexo'-ren semea.

EUSKALGINTZA


Idoia Genua. Irungo AEK.

LITERATURA

Maripi Solbes Uranga. Jorge Gimenez Bech.

ARTE DRAMATIKOA

Espe Lopez. Legaleon-T.



1993ko afixa.

HISTORIA. Mertxe Tranche. Literatura tailer, feminismo, eta historia alorretan aritua.

ARGAZKIGINTZA

Jon Iraundegi. Rock kontzertuetako argazkilaria.

FEMINISMOA, GAY-LESBIANAK

Txaro Arribas. Argiri emakume taldea. Josu Cariñena. EHGA.

AUZOETAKO JAIK

Rafa Gonzalez Merino.

TABERNARIEN IKUSPEGIA

Joxe Mari Etxenagusia 'Etxe'.

SANTO TOMAS FUTBITO

TXAPELKETA Toño Puerta.

gizarte eta kultur susperraldia erretratatu du xehe-xehe.

Atarikoan aipatu duenez, "ahozko historiaren eta istorioen bilduma" egin nahi izan du Sarasolak, "hitzez nahiz irudiz osaturiko argazki orokorra". Hamarkada hartan gizarte eta kultur bizitzan protagonista izan zirenen elkarrizketek osatzen dute liburuaren muina. Alabaina, harrigarria egiten da bere eskuetara heldu den irudi, afixa, fanzine, pegata, eskuorri, datu, bideo, bitxikeria, lekukotza eta informazio pila. "Liburu honen asmoa ez da entziklopedia izatea" nabarmendu du horri buruz galdetuta; material mordoa bildu izanagatik, halakoe-tan badelako beti zer osatu, zer jaso, zer erreparatu.



Pedro Rodriguez (Caid Deceit taldea), Gernikako gaztetxean.

Juanma Sarasola: «Topikoak hautsi ditzake liburuak, Iruni oso toki jakinetik begiratzen baitzaio gaur egun»

Halako dimentsioa hartzen duen lana izaki, zor moralik sortu al zaizu?

Lagundu didatenekin dut zorra, kontaktuak eta materiala eskura jarri didatenekin, ezagutzen ez nituen talde eta pertsonen izenak eman dizkidatenekin. Gero, liburua argitaratzen denean, gerta liteke bakarren batek erreparoa agertzea, halakori behar beste garrantzirik eman ez diodala esatea, adibidez. Denetik sartzen saiatu naiz, baina hautaketak ere badago, azken finean.

Nola egin duzu hautaketa, atalez atal joan zara ala pertsona jakinen bila jo duzu?

Lehenik musikarekin hasi nintzen, arlo horrek hartuko baitu toki zabalena. Saltsa horretan gidari izan direnak edo jendearengana gehien hurbiltzen zirenak hobetsi ditut. Buruz errepasoa egin ondoren informazio bila hasi nintzen, interneten, liburutetan eta gainerakoetan. Ezagunengana ere jo dut, Apurtu taldeko Aitor Perezengana, esaterako, eta haiek informazio eta material gehiago pasatu didate. Gaika joan naiz liburua osatzen. Zenbait kasutan, hautatutako protagonistak arlo bat baino gehiago hartzen du eta kasu horietan guztiez galdetu diet, baita garai hartako

ko balorazio orokorraz, bizi izandako esperientziaz edo gaur egungoarekiko alderaketaz ere.

1983-1993ko tartean murgildu zara zehazki.

Baina sarreran atzerago ere jo dugu, eta elkarrizketetan aurreko erreferentziak aipatzen dituzte zaharrenek. Mattin Sorzabalbereri edo Fermin Muguruzari, adibidez, musikan nola hasi ziren galdetu diedanean edo orduko giroaren berri emateko eskatu diedanean, lehenagoko gertaerak aipatu dizkidate aurrekari gisa: Aixerrrotako kontzertu sonatua, The Clashek Anoetan jo zutenkoa... Erreferentzia saihestezinak dira. Bestalde, denboran aurrera ere egin dut, batik bat epilogoan, Vomitot taldeko Victor Perez zenari 1995ean egin zitzaion omenaldia barne hartu nahi bainuen. Bera bezala hildako beste askoren sinbolo gisa ekarri dut Victor Perez. Haiek ere gogoratzeke.

Irrati libreak, gaztetxeak, literatura, zinema, Okupen mugimendua, feminismoa, drogak... Arlo ugari ageri dira liburuan, eta tabernariak ere tokitxo hartu dute.

Gertatzen ari ziren saltsak hobekien ikusten zituztelako. Jendearen

jarrera ongi kaptatzen zuten, musika jartzen zuten. Festen Batzordekoak ere kontuan hartu ditut. Garai hartan Santo Tomas futbol txapelketa antolatzen zuen Gestorak. 128 talde aritu ziren txapelketan eta udala zangotraban beti. Kamiseta batzuen harira liskarra sortu zen eta oihartzun handia izan zuen. 1993an ez zuten azkenean antolatzen utzi eta 1994an egin zen azkena. Azagrak gertaera haren kontura egindako komikia ere ekarri nahi dut liburura.

Irundik kanpokoan begirada ere jaso duzu.

Herrialde bakoitzetik kolaborazio bana ekarri nahi nuen, eta emakumezkoak kontuan hartzeko ahalegin berezia egin dut, gainerako orrialdeetan ez baitaude sobera: Niko Etxart, Itxaro Borda, Elena Lopez Agirre, Aurora Beltran...

Zer aportatuko du liburuak?

Garai baten testigantza, hasteko eta behin. Neronek asko ikasi dut. Batzuentzat garai hura gogoratzea izango da, perlaren bat deskubritzea ere bai, beharbada. hogeitako gazteentzat, gauzak bere tokian jartzea, mitoak haustea; zenbaitek esan didatenez, gaurko gazteek

Hitzordu ugari egin du Sarasolak, jorratu dituen arloak eta aurkibideko izenen zerrenda ikusi besterik ez (aurreko orrialdeko koadroan). Baina elkarrizketa hutsetik harago, solasaldi bilakatu zitzaizkion hitzordu gehienak, “maiz ildo zurrunetatik desbideratuta aritu ginen berriketa librean. Horrek bestelako datu bilketa ahalbidetu digu, atseginagoa, lasaiagoa, mamitsuagoa”.

Itxurak itxura, oroi-min negartitik eta mitifikaziotik urruntzea izan da nola egilearen hala protagonista gehienen asmoa. “Iraganeko aro baten modura deskribatu dute garaia, gainditutako etapatzat”. Sarasolak dioen

moduan, “pasibotasuna eta indibidualismoa nagusitzen ari zaizkigun honetan, badugu garai hartatik zer ikasia. Ekintza zuzena, inkonformismoa, matxinada eta irudimena nagusitu ziren, baina dena ez zen perfektua eta ederra izan: errepresioa, droga menpekotasuna, proiektuen eta borroken desaktibazioa, heriotza...”.

Aitor Puche historialarien ikuspegi kritikoa ere batu zaio liburuari, aztertu duen garaiko protagonistek zer ikusi, bizi, pairatu, kritikatu edo borrokatu zuten ulertzeko baliagarri delakoan. ■





Juanma Sarasola Hendaian bizi da gaur egun.

oso idealizatuta baitute garai hura.

Nire ustez, Irun izan zena eta oraindik hein batean ere badena erakutsiko dio liburuak Euskal Herriko jendeari. Topikoak haus-

tea ere ekar dezake, Iruni oso toki jakinetik begiratzeko baitzaio, nagusiki Alardea dago tartean. 1995ean bukatzeko arrazoietakoa bat, hain zuzen, horixe da. 1996an

hasi zen Alardearen inguruko liskarra. Ez nuen hor sartu nahi, liburuak gai horren arabera etiketatzen hasiko zirelako, eta behar-bada baztertzen. Moskun giroa makaltzeko arrazoietako bat ere horixe bera izan zen, Alardeak ekarritako haustura. Lehen denetarikoa jendea ibiltzen zen Moskun. Orain askok Moskura jaisteari utzi diote eta goiko San Juan inguruko kale Nagusian gelditzen dira. Pena da.

Alardea baztertu duzu eta politika ere ez da zuzenki ageri.

Politika ez dut arlo gisa hartu baina zeharka liburu osoa zipriztintzen du ezinbestean. Hori beste liburu baterako gaia zela otu zitzaidan, arlo ekonomiko eta sindikalak ere hirugarren baterako emango lukeen bezala.

Bertsolari
Txapelketa
Nagusia 2013

KANPORAKETAK

OION

Arroyo I pilotalekua
Urriak 26, 17:30ean



Eneritz
Zabaleta



Etxahun
Lekue



Iratxe
Ibarra



Maddi
Jarasua



Manex
Egiurre



Miren
Enmuriza

www.bertsozale.com

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



Kulturako murrizketak ez genituzke denon artean estali beharko

Musikari buruzko dokumentalak proiektatzen dira Donostiako Dock of The Bay jaialdian eta datorren urtekoa zortzigarren edizioa izango du. Inoiz ez du erraz eduki, bere burua finantzatzeko sos-emaile pribatuen laguntza izan duelako; orain kremailera jarri diote poltsikoari eta hurrengo edizioa antolatzeke herritarren laguntza eskatu dute.

| GORKA BEREZIARTUA |

OHITZEN ARI GARA horrelakoetara eta ez dut uste ona denik. Esplikatu nadin. Ez daukat problemarik Dock of The Bayri laguntzeko, interesatzen zaizkidan beste hainbat mugida laguntzeko poltsikoetan hazka egiteko beldurrik ez daukadan legez. Gertatzen da, apur bat susmagarria bihurtzen ari dela crowdfundinga eskuz, oinez eta belarriz jasotzen ari den txalo zarta orokorra.

Irailaren 26an atara zen finantzazio kolektiboaren gaia Donostiako Kortxoenea gazte-



TOMAS CASTELAZO

Erakunde publikoek kulturaren murrizketak egin bitartean finantzazio kolektiboa goratuz gero, argazkiko hau izan daiteke etorkizuneko crowdfundinga.

txean antolatutako Zinemaldi Alternatiboan, Fundación Roboren dokumentalaren ondorengo mahai-inguruan. Anari, Leire Lopez Ziluaga, Jokin Azpiazua eta Giorgio Bassmatti aritu ziren berbetan autoedizioaz eta, horrelakoetan gertatzen den moduan, beste zenbait gairi buruz ere hitz egin zuten, tartean crowdfundinga. Lopezek seinatu zuen ez dela hitz egiten mota honetako ekimenen atzean dagoen dramaz: desinbertsio publikoa eta kultur arloan lan egiten duen jende askoren prekaritatea.

Egoera ekonomikoa primeran etortzen ari zaie politikari askori lehen ere gehiegi sustatzen ez zuten kulturaren esparrua jitoan uzteko eta uste dut crowdfundingaren aldeko diskurtsoa inbertsio publikoen lema herritarrei pasa dietela esateko balia dezaketela. Emaizta, botiken berrordainketaren antzeko zerbaite kulturaren: zergen bidez pagatzen duzuna, gehi zure kabuz finantzatu nahi/ahal duzuna.

Beraz, bai, lagundu ditzagun diru premian dauden ekimenak, baina goazen perspektiba edukitzera ere: erakundeei uzten badiegu euren betebeharez ahazten, horrek epe ertain-luzera ekar ditzakeen ondorioak katas-trofikoak izan litezke. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua



Haur eta Gazte Literatura

Arturo eta Klementina
Adela Turin.

Irudiak: Nella Bosnia

Itzulpena: Fernando Rey
Pamiela, Kalandraka, 2013

Arturo eta Klementina

1976AN PLAZARATU ZIREN lehen aldiz *Arturo e Clementina*, Milannen. Adela Turin idazle eta ikerlari feministak sortu eta Nella Bosniak ilustraturiko protagonista ezagunenak edo ezagunenetarikoak dira. Orain, ia 40 urte geroago, euskaraz ari zaizkigu bi dortoka ezagun horiek (baita *Arrosa eta leuna* laneko elefanteak ere), eta denborak aurrera egin badu ere, liburu horiek zoritxarrez ez dute gaurkotasunik galdu. Izan ere, Adela Turin eta Nella Bosniak “Neskatilen alde” izeneko bilduman plazaratu zituzten obra horiek eta beste batzuk ere. Gizarte matxistari kritika eginez, haurrentzako istorio aurrerakoiak eta iraultzaileak kritika feministaren ildotik sortuak; gizarte matxistaren aurrean, haurrentzako literatura matxistaren aurrean, alternatiba gisa aurkeztuak.

Arturo eta Klementina liburuan, esaterako, dortoka bikote baten istorioa kontatzen zaigu. Ezkondu ondoren zoriontsu bizi diren dortokak, Arturo etxetik kanpo lanean, Klementina etxean, etxe-ko lanak egiten eta senarraren zain. Arazoak baina, Klementinak beste gauza batzuk egin nahi dituenean sortzen dira. Pintatu nahi duela, bidaiatu, musika jo... eta orduan Arturok behin eta berriro erakutsiko dio ez duela balio, ez dela gai gauza horiek egiteko, hobe duela etxean musika entzun, koadroak ikusi... Eta horrela, Klementinaren bizitza gero eta pisutsuagoa da, gero eta jasanenagoa.

Modu sinplean, erraz uler daitekeen eta aldi berean animalien pertsonifikazioaren bidez distantzia ere gordetzen duen adibide hau dela eta, haurrek berehala bereganatuko dute liburuan ageri den mezua; gogoeta gizon eta emakumeen arteko rol banaketaz, emakumeen askatasunaz eta norberaren garapen beharraz... eta hori dena, dortoka biren istorio, antza, sinple eta labur honetan.

Liburuon helburu didaktikoa nabarmena da, alde horretatik; baina, era berean, istorioa kontatzeko era, narrazioaren erritmoa edota protagonisten karakterizazioa lortuak eta landuak dira. Bere ekintzen bidez joango gara Arturo ezagutzen, bere jarrera dela eta, Klementina. Eta, horrela, hasiera batean bikote zoriontsua, ameslaria, itxaropentsua zena, hautsitako bikote bilakatuko da orriak pasa ahala. Irakurlearen baitan aldaketa eta gertakarien inguruko gogoeta zabaltzen den neurri eta erritmo berean.

Ia 40 urte pasa dira Arturo eta Klementina plazaratu zirenetik, baina oraindik ere haien beharrea ginen. Poztekoa da, alde horretatik, haur literatura modernoan klasikoa zen obra hau euskaraz ere irakurtzeko parada izatea, eta eskertzekoa Fernando Reyk eginiko itzulpena. Iritsiko al gara ipuin soil moduan irakurtzera! ■

Xabier Etxaniz Erle



Literatura sushia bailitzan, haur eta gazteentzat

RINOCERONTE EDITORA S.L.U. argitaldaria galiziarrek zigilu berria sortu du, haur eta gazteentzako literatur liburuak plazaratzeko xedez. Zigiluak Sushi Books du izena, eta galizieraz ez ezik, euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz ere argitaratuko ditu obrak. Egungo idazle galiziarrek beren lurraldetik at ezagutarazi nahiko litzuke argitaldaria, baita nazioarteko egileak aipatu hizkuntzetera itzuli ere. Sushi Booksek hiru bilduma aurkeztu ditu oraingoz: Albuma –irudidun liburuak, batik bat–, Bitartekoa –Lehen Hezkuntzako irakurleei zuzendua–, eta Aurreratua –haur handiagoentzat aproposagoa–.

Euskarazko publikazioei dagokionez, *Ostiral* irudidun albuma dugu merkaturatzen lehena. Santiago Freire idazlea eta Dani Padrón ilustratzailea ditu egileak eta Robinson Crusoreen laguna du protagonista: “Baliteke niri buruz zerbait entzun izana, baita nire lagun Robinsoni buruz ere, baina beti haren ahotik izango zen. Orain, nik kontatuko dizuet nola ezagutu nuen gizon zuria”.

Webgunean ikusten ahal denez, Ole Lund Kirkegaard-en *Otto Errinotzerontea* eta Orla Igelontzi, Érica Esmoris-en *Amabelen boterea*, Carlos Freireren *Zabor mutantearen misterioa* eta Antonio M. Fraga Allegueren *Xildar* eskuragarri izango ditugu aurki. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea



Identitate propioaren bila

GIZAKIA ez zen zuhaitzetik jaitsi, erori egin omen zen. Heldutasunera iritsi baino lehenago zuhaitzetik jausi, behinola zutitu eta geroztik bata bestea jan besterik egiten ez duen izaki basati bilakatu da. *Homo homini lupus*. Gizakia otsoa da gizakiarentzat, gizakiak irentsi egiten du hurkoa, kalteak eragiten dizkio albokoari, ingurukoari, inguruari. XXI. mendeko pandemia gizakia bera da. Tamalez, berau suntsitzeko abilezia duen espezie bakarra.

Malenkoniaren bigarren diskoa gizakian zentratzen da, gizarte dekadente honen arazoak islatzen ditu. Gizon eta emakumeen jarrera suntsitzailearen aurrean kritiko ageri dira. Kutsu ezkorra duen disko antropologiko honetan historian barrena hainbat bider errepikatu diren ankerkeriak erakusten dira, gizakiaren alderik bortitza, hain zuzen: arma nuklearrek Hiroshiman eta Nagasakin eragindako kalte izugarriak, munduko hainbat herrialdetan izar-uxoak bailira bezala zerua estaltzen duten bombardaketak, pentsamendu kritikoak ezabatzeko egindako liburu erreketak, liburuen eta autoreen debekua, bidegabeko zigorrak, etab.

Zortzi urte igaro dira lehen maketarik, eta noski, oñatiar laukotea ez da lehen zena, ezta beraien erreferentziak ere. 2009an kaleratu zuten *Hegazkidak dakar ekaitza* lehen diskoak britpoparen eragina zuen, eta oinarrian jatorrizko kontzeptu honekin jarraitzen badute ere, bigarren disko honetan gehiago arriskatu dira. Jatorrizko malenkoniaren hondarrak melodi tristeak osatzen bazituen, oraingo disko honetan, leloetan akorde maiorrak sartuz adibidez, doinu baikorrak heldu zaizkigu. Taldearen garapena agerian da abestien egiturari, ahozko afinazioari, moldaketak egiteko aukeraketa eta letren sakontasunean ere. Lan txukuna, ardurasua eta kontzientea aurkeztu dute, letren gordintasunak, melodien konposaketak eta exekuzioak koherentzia lotuak baitaude. Era berean, naturalago izateak indarra eman dio taldeari.

Garrantzi handia eman diote diskoaren estetikari ere, erromantikoentzat euskarri fisikoa mimoz egitea gustatzen zaien seinale. Arreta handia jarri dute ere *Ipar arrotza* kantuaren bideoklipa egiterakoan. Herrikide duten Irudiz komunikazio taldearen eskuetan utzi dute ekoizpena eta Kepa Aranbururen zuzendaritzapean izan dira Bernat Alberdi



Homo homini lupus
Malenkonia
Autoekoizpena, 2013

kamera eta Erik Zubiria aktorea. Azken honek gainera, biolinak grabatu ditu zenbait kantutan Alain

Anton (baxua), Iñaki Goitia (bateria), Iñigo Ugarte (gitarra) eta Rober Ferreiro (ahotsa eta gitarra) laukote gaztearekin.

Axular Arizmendiren gidaritzaren teknikoarekin grabatu zen diskoa 2012ko abendua eta 2013ko urtarrila bitartean, Mutrikuko AME estudioetan.

Aurreko diskoko *Haizerik gabeko eguna* singlearen ondorengo duina da *Fahrenheit 451* abestia. 1891n Varsovian jaio zen Osip Mandelstam poetarengan inspiratuta dago eta funtsean, inoiz idatzia izan ez denak ezin duela surik hartu ohartarazten du.



Sutatik salbu da Malenkonia, talde gaztea baita, oraindik bere historia idazteke duena. Abenduaren 5ean Durangoko Azokako Ahotsenean emango dute kontzertua. Gerora haien ibilbideri buruz idatzi eta azpimarratzekoa izango den egun horietakoa sueta dakien desio diet. Han izango gara milaka euskaldun eta euskaltzale, suaren garrak harrapatzea espero ez duten disko eta liburu artean. ■

Olatz Korta



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Iratxe Retolaza idazlearen esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	5		6	2	4		1	
	7	6			1			4
	2	1		5			6	8
	3		1			6		
1		5		6		7		3
		7			3		2	
5	8			1		4	7	
2			7			8	3	
	1		2	3	8		9	

Zaila

2			5		7			4
7		3			8			
		9		1	6			
	8	2						5
	3						8	
5						3	1	
			2	7		6		
			8			9		1
3			1	5				2

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Suak.
- 2.-Babesleku.
- 3.-Altzo.
- 4.-Euskal Herriko herrialdea.
- 5.-Lekedak.

Kike Amonarrizen umorea

Beti ni



Beti bere buruaz hizketan ari zen aktore batek, bere azken filmari, telesail batean izandako agerpenei eta etorkizuneko bere proiektuei buruz ordubetz etengabe hizketan aritu eta gero, honako hau esan zion zeharo



aspertuta zegoen bere solaskideari:

– Barkatu Josune. Denbora guztia nire buruaz ari naun. Orain hitz egin dezagun hitaz... Zer iruditu zitzaian nire atzoko interpretazioa telesai-lean?

Soluzioak

Erraza

1	7	3	1	7
2	4	5	1	2
3	7	6	8	9
4	2	1	3	5
5	8	9	4	6
6	3	2	7	5
7	5	4	6	2
8	9	7	3	1
9	6	8	5	4

Zaila


1	3	4	5	6
2	4	2	8	5
3	5	9	3	1
4	6	7	1	2
5	8	2	7	3
6	1	3	6	5
7	4	5	8	2
8	2	7	9	6
9	6	2	5	4

Puzzlea:

“Literatura errealtateari aurre egiteko espazio aproposa izan daiteke. Hau da, besteen espertizien berri izateko, eta besteen lekuan jartzeko.”

5x5:

1. Lamak.
2. Abaro.
3. Magal.
4. Araba.
5. Kolak.

[illegible]

ziren guztiak emakumezkoak ziren. Emakumeak, eta gehienak sortzailerak, esango nuke, sobe-
ra ezaguna zaien erreali-
tateari begira. ■



Nola egokitu ordu aldaketara?

ZENBAIT HERRIALDETAN ohitura da ordua aldatzea, energia aurrezteko intentzioarekin —arrazoi ekonomikoek eraginda, beraz— edo urte-sasoi berri bati ekiterakoan ordutegi naturala egokitu eta aldatzeko, besterik gabe. Baina pertsona batek kontinente batetik bestera bidaiatzen duenean ere ordutegi aldaketa gertatzen da, eta horrek pertsonaren ziklo biologikoei erasaten die. Azken fenomeno horri “jet lag” edo ordu-eremuen sindromea esaten zaio.

Neurologoek, fisiologoek eta gainerako adituek diotenez, gure gorputzak denbora puska bat behar izaten du edozein arrazoi dela medio gertatutako ordu aldaketetara egokitzeko: egun bakarra batzuetan, baina kasurik gogorrenetan bost egun ere behar izaten dira. Eta zenbaitetan egokitzapen-prozesu hori oharkabean pasatzen bada ere, badira honako sintomak izaten dituzten pertsonak: ondoeza orokorra; nekea, errendimendu eskasagoa lanean; ezertarako gogorik ez edukitzea; suminkortasuna, loezina edo insomnia; kontzentrazio, arreta edo memoria arazoak; aldaratearen aldaketak, depresioa; trastorno digestiboak, apetitua egunez gutxitu eta gaeuz gehitzea...

Sintomak zorrotzagoak izan ohi dira umeengan eta adineko pertsonengan, eta trastorno neurologikoak —migraina edo epilepsia, usue-

nak aipatzearren— jasaten dituztenek okerrago eta modu indartsuagoan pasatuko dute egokitzapen garai hori.

Sinkronizatu zure barruko erlojua

Gure barruko erloju biologikoa ordu aldaketara egokitu dadin, adituek hurrengo ohar eta jarraibideak betetzea aholkatzen dute:

- Ordua aldatzea tokatzen den asteburua baino egun batzuk lehenago, gure ohiko errutinak, elikadurarekin eta loarekin lotuak daudenak bereziki, egunero hamar bat minutu aurreratuz joatea komeni da.


- Aldaketaren hurrengo hiru egunetan, berriz, egizu lo gaeuz, eta siestarik ez egin logura edo lozorroa eduki arren, loaldiaren zikloen alterazioak eta nekea saihesteko.

- Argi naturalaren pean jartzea eta goizean goiz ariketa fisikoa egitea ere oso mesedegarriak gertatzen dira gure gorputzaren adaptazioa errazteko.

- Hidratazio egokiak nekea arindu eta gogorik eza murrizten du.

Nork bere erara bizi du

Dena den, beste edozein aldaketarekin gertatzen den bezala, sintomak eta erreakzioak oso diferenteak dira pertsona batetik bestera, hala nola aldaketa horrek gure eguneroko bizimoduan ekar ditzakeen eraginak ere, ordu aldaketaren endredoa ez baita maila berekoa lanbide mota guztietan, ezta adin guztietan, ezta gizarteko egoera guztietan ere. ■



SALVADOR DALÍ



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Pinu luma

HOSTOA ETA ORRIA. Hizkuntza kontuetan iaioa den Markel bat badut lagun, Saldiasen. Eta, lehen-go asteko idatziaren arrastoan, berak esana dit filologoen araberrako “hosto” hitzaren etimologia. Hosto guztien amama orria, “orri” hitza omen. Orri txiki esateko, “-sto” atzizki txikigarria eransten zaio, “orri” + “sto” da hostoren ama.

1973ko apirilaren 30ean, hone-la idatzi zuen Imanol Berriatuak *Anaitasuna* aldizkariko 254. zenbakian, *Ikasi zeure hizkuntza* ataleko hiztegiari: “HORRIALDE, página, page. (Armendaritzek berba hau H-z idazten du, hosto hitzak H duelako. Hosto hitza –Oihenarteren horsto eta Kandido Izagirek Oñati inguruan jasotako ostro lekuko– horri-ren diminutibotzat har daiteke, horristo alegia, errekaeto eta idisko bezala)”.

“Horsto” ez dut inoiz aditu. “Hostro”, bai, entzun izan dut. Sekula entzun gabea nuena “luma” da, pinu orriari “pinu luma” deitzea, alegia. Goierriko Telleriarteke Egizearreko Asierrrek esan dit, hark ere lehen-go astekoaren uberan. Inaurkinetarako garoa ebaki eta bere horretan utzi, eta gero, ilargialdi batera edo, pinu lumez estalita, inaurkin gehiago eta gozoagoa metaratzeko ohitura dute.



ASIER GALDOS

Inaurkin meta.

Beste luma bat ere agertzen da lehentxeago aipatu dudana *Anaitasuna*-ren zenbaki horretan. Idazle batek bertan jasan zuen zentsura salatzen du eskutitz luze batean, eta tartean hau dio: “Zeren zuen errebista horretan egin zaidana bezalako zentsura bezalakorik ez baitu orain artean egundo neure lumaren zorrozatasunak ezagutu. Artikulu ongi landuak, poesia koardratuak, atzera bota zaizkit”. Horrela adierazten du, gordin asko, idazleak pairatu duena. Baso bat du abizen poetak. Orbel ede-

rraz gain, zur bikaina eta bi fruitu, behinik, ematen dituen zuhaitzen basoa. Ezkurra eta kuskulua edo kuku sagarra. Hirugarren fruitua ere ematen du bai baso horrek: “poesia koardratuak”. Haritzeko da basoa, eta bera Gabriel, Gabriel Aresti. Arestiren orrialdeen basoak hostaila bikaina du. Hostotza, orritza, hostrotza, berdetza eta mastratza mardul horrek orbel eta inaurkin ezin hobea ematen du. Azpi gozoko oheetarako... ■



1 x 64

1847an argitaratutako Juan Ignazio Iztuetaren *Gipuzkoa probintziaren kondaira edo historia* liburuan aipatzen da Jovellanos espainiar idazle “jakintziak” esana: Gaztelan bazirela ereindako anegako hoge ematen zituzten lurak. Gipuzkoa aparren gainetik

jartzeko bi adibide aipatzen ditu Iztuetak. Zaldibiko Mugerza baserria, non batekin 30 biltzen ziren “urtabe ona dan guztietan”. Bestea, Donostiako Etxazar baserrian 1833an garia artoaren gisara zuloka ereinda, lakari batek 64 eman zituenekoa. ■



EUSKOMEDIA-AUNAMENDI
EUSKO ENTZIKLOPEDIA

Juan Ignazio Iztueta.

Molotov ala Dominguez?

NONSEI



Britainiar
armadako
Home Guard
dibisioko
soldaduak
Molotov
koktelak bidezko
erasoa
entrenatzen,
Bigarren Mundu
Gerran.

FINLANDIA, 1939KO AZAROA. Neguko Gerra abiatu zen sobietarrek Europa iparraldeko herrialdea inbaditu zutenean. Ejertzito Gorria askoz indartsuagoa izan arren, finlandiarrek negu osoan eutsi zioten erasoari, 1940ko martxora arte.

Orduan, Viacheslav Mijailovitx Skryabin kanpo ministro sobietarrak —Molotov edo “mailu” ezizenez eza— propaganda kanpaina bitxia jarri zuen abian. Informazioan eta, batez ere, desinformazioan maisua zela erakutsiz, irratik bidezko hainbat adierazpenetan esan zuen sobietarrek ez zirela Finlandian bonbak botatzen ari, finlandiarrentzako janariz betetako paketeak baizik. Sobietarren nagusitasunari aurre egiteko, finlandiarrek ahal zutena erabiltzen zuten, esaterako, botila sutzailak. Eta Molotoven adierazpenei umorez erantzun zieten: “Molotovek janaria ekartzen badu, guk edaria jarriko dugu”. Sobietarren lehergailuei “Molotoven janari saskiak” esaten hasi ziren, eta finlandiarren su bonbei, berriz, “Molotov koktelak”.

Historiako liburuak diote Molotov koktelak lehenengoz Espainiako errepublikarrek erabili zituztela 1936ko gerran. Baina hemerrotekari erreparatuz gero, antzeko arma piz-taileak mende bat lehenago ere erabili zituzten Espainian bertan, Gra-

nadako Motrilen, zehazki. 1831ko uztailan albiste hau agertu zen Madrilgo *La Gaceta* egunkarian:

“Calahonda eta Adraiko uren artean [Motrilgo hondartzak] Josef izeneko txalupa kostazain espainiarrek kontrabando ontzi bat atzeman zuen. Ontziaren parera iristean, kostazainek ontzia nondik zetorren galdetu zuten, eta kontrabandistek kanoikadaz erantzun zuten. Kanoi sua batetik eta bestetik zebilela, abor datzea hasi zen. Gauzak horrela, txalupako patroiak suzko hainbat flasko jaurti zituen kontrabando ontziaren aurka eta, ondorioz, eskifaiko kide guztiek uretan murgildu behar izan zuten. Uretatik hemezortzi gizon atera zituzten, erreta edo zaurituta. Gero, beste zortzi oraindik kontrabando ontzian zeudela antzeman zituzten, bi artilleria pieza laburrekin eta kontrabandozko salgaiekin batera. Txalupako eskifaia dagokionez, Manuel José Dominguez karabinari lotinanta, kostazaineko komandantea, larriki zauritu dute, eta kontramaisuak eta bi marinelek ere zauriak dituzte”.

Hortaz, finlandiarren umoreari erreparatu ordez, jatorri historikoa aintzat hartuko bagenu, beharbada, Josef koktela edo Dominguez koktela esango genioke gailu ezagunari. ■



Arrastoak

Industria Iraultzako giza iratzargailuak

XVIII. MENDEAREN amaieran, Ingalaterran milaka langilek goizera ordu jakinetan esnatu behar zuten industria jaioberrietan lan egiteko. Iratzargailua orduantxe asmatu zuen Levi Hutchins-ek —1878an, hain zuzen—, baina asmakizuna ez zen berehala jendartean zabaltu, are gutxiago langileria txiroan.

Horregatik, *knocker-up* edo *knocker-epper* lanbidea sortu zen. Penny gutxi batzuen truke, giza iratzargailu horiek langileak adostutako orduan esnazarazten zituzten.

Behealdean bizi zirenak ate joka esnatu ohi zituzten *knocker-up*-ek. Bestela, makila luzeak, gehienetan banbu kanaberak, erabiltzen zituzten leihoak jotzeko. Eta kanaberak iristen ez zirenean ufatutu modukoen bidez —eta tiroak ondo doituz— ilarrak jaurtitzen zituzten langileen leihoetara.

Charles Dickensek *Great Expectations* nobelan deskribatu zuen lanbideak 1920ko hamarkada arte biziraun zuen. ■



ABANDONED PICTURES


Knocker-up edo giza iratzargailua 1900. urte inguruan.

www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

Urtetako kutsadura askatuko den beldurrez

Bilboko Portuak hazi egin nahi du, eta horretarako behar duen materialaren zati bat itsas hondotik ateratzeko asmoa dauka. Bere xedea betetzeko, Portu Agintaritzak proiektu paralelo bi dauzka martxan: portua handitzeko bata, itsaspeko harea eskuratzeko bestea. Bigarrenaren aurka agertu dira zenbait talde, baita udalen bat ere. Haien iritziz, proiektuak ingurumen arazo larriak eragingo ditu.

| UNAI BREA |



ABRA BIZIRIK

Abran egin nahi dituzten dragatze lanen aurkako protesta baten irudiak.

JOAN DEN UDABERRIAN Espainiako Ingurumen Ministerioak ontzat eman zituen Bilboko Portuko Agintaritzaren proiektu biren Ingurumen-Inpaktuaren Azterketak. Biak ere, elkarri estu lotutakoak. Bata, Erdiko Kai Muturra deritzona eraikitzeko egitasmoa, portuaren zabalkundeari dagokio. Hiru kai egin nahi dituzte, guztira 600.000 metro koadro beteko dituztenak. Bigarren proiektuaren helburua,

berriz, itsas hondotik hondarra ateratzea da, Erdiko Kai Muturra zein bestelako eraikuntza batzuen betelana egiteko behar den materiala eskuratzearren, hain zuzen.

Portu Agintaritzak emandako datuen arabera, 49 milioi metro kubo harea erauzi nahi dituzte orotara, 33 eta 63 metro bitarteko sako-nera duen itsas hondoaren eremu batetik. Punta Luzero muinoaren aurrean dagoen zortzi kilometro

koadroko hondarpe bat aukeratu dute horretarako, Abraren kanpoko aldean. Erauzitako materialetatik, hogei milioi Erdiko Kai Muturrerako erabiliko dira, eta kopuru txikiagoak bideratuko dituzte beste lan batzuetara. 49 milioi metro kubo horietatik, Portuak zehazteke utzi du 22.500.000ren erabilera zein izango den, eta baliteke ez erauztea ere. Besterik gabe, ateratzeko baimena ziurtatu nahi dute, etorkizunean suerta

litezkeen beharrak asetzeko. Izan ere, materialak ez dira aldi bakarrean erauziko, hainbat fasetan baizik.

Bide batez argitu dezagun Ingurumen Ministerioaren onespenez ez dakarrela berez lanak hasteko baimena, ezinbesteko baldintza bada ere. Baimen hori Sustapen Ministerioak eman behar du, eta ezerk ez du aditzera ematen ukatu egingo duenik. Gogoan izan behar da ministerio horren menpekoak direla Espainiako Estatuko portu agintaritzak guztiak. Hitz lauz esanda, Sustapenak bere buruari eman behar dio lanak hasteko baimena.

Hutsuneak lehen Ingurumen Inpaktuko Azterketan

Portu Agintaritzaren egitasmoa ez da oraintsukoa, ezta haren aurkako borroka ere. Hondar erauzketak ingurumenarentzat izan ditzakeen ondorioez kezkatuta, hainbat auzotar elkartek eta talde ekologistak ezbaian jarri dute proiektua azken urteotan. Udal batzuk gehitu zaizkie. Hain justu, 2011n AZTI-Tecnaliak egindako proiektuaren Ingurumen Inpaktu Azterketa ezagutzera eman zenean, Muskizko Udalak Alejandro Cearreta EHuko geologoa kontratatu zuen, bere jakintza arloaren ikuspegitik AZTIren azterketa balora zezan.

Honela azaldu dizkigu Cearretak bere azterketaren gakoak: “Ondorio nagusia zen dragatu beharreko materialak ez zeudela behar bezala karakterizatuta; bidenabar, ni ez naiz ideia hori zabaldu duen lehena, aurretik gauza bera esan baitzuten Ingurumen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak”. Funtsean, honetan

datza EHuko irakasleak aipatutako gabezia: Portu Agintaritzak gainazal handia dragatu nahi du, batez beste bost metroko sakoneraino, baina azaleko sedimentuen karakterizazioa baino ez zuten egin, eta gainera eremu txiki batetik hartutako materialena. “Logikoa material guztia karakterizatzea da –dio Cearretak–, aleez betelanerako tamaina egokia duten jakiteko, ingurua birkolonizatze arazoak izango diren kalkulatu ahal izateko, ingurumen aldetik sedimentuok kalterik egingo duten aztertzeke... Ingurumen Inpaktu Azterketa hark balio eskasa zuen”.

Lehen Ingurumen Inpaktu azterketan hartutako 121 laginetatik, hogeitan baino ez zuten aztertu ingurumen kalitatea

Dena ez da hondarra

Alejandro Cearretak azaldu digunez, AZTI-Tecnaliak 121 lagin hartu zituen, denak azal-azalekoak. Lagin guztien granulometria aztertu zuten, alegia, Portuak egin nahi dituen lanetarako neurri egokiko materialak diren ala ez, baina ingurumen aldetik kalitatea hogeitaz laginetan baino ez zuten neurtu. Zenbaitzuetan, metal astunen kopuru ertainak aurkitu zituzten, eta bakar batean merkurio kopurua altua zen. Kutsatzaile organikoei dagokienez, PCB kontzentrazioa altua izan daiteke hamaika laginetan, nahiz eta ezin daitekeen segurtasun osoz esan, erabilitako neurketa metodoak direla eta.

“AZTIren txostenak dio –gaineratu du Cearretak– material guztia ez dela harea, buztin eta lokatza ere badagoela, alegia, material finak deritzenak. Hori garrantzitsua da, material horiek gaitasun handiagoa daukatelako substantzia kutsatzaileak atxikitzeke”. Geologoaren esanetan, erauzketa, garbiketa eta garraio prozesuetan gerta liteke kutsatzaile horiek itsasora isurtzea. Ikusiko dugunez, Portuko asmoen aurka dauden argudioen muin-muinean daude material finak.


Zer gertatuko da hondartzeekin?

Azkenik, dragatze lanek inguruko hondartzetan edukiko luketen eraginaz mintzatu zaigu Cearreta. “Abraren barruan dauden hondartzetan olatuen energia %15 eta 20 bitartean gutxituko dela aipatzen du AZTIren txostenak, baina ez du esaten zer ondorio izango duen horrek. Izan ere, aitortu egiten dute oso zaila dela ondorioak aurreikustea, horretarako hondartzen morfodinamikaren hiru dimentsioko karakterizazio ona behar delako. Baina karakterizazio hori egin gabe dago, eta AZTIk ez dio Portuari eskatu egin dezan”. Cearretak dioenez, hondartzak etengabe ari dira aldi berean harea galtzen eta berreskuratzen. Berreskurapen hori ematen ez bada, alegia, harea gehiago galtzen bada irabazten dena baino, hondartza desagertuz doa, hain zuzen Abra barruko beste hondartza bati –Areetakoa, gaur hutsaren hurrengo– gertatu zitzaion bezala barne portua eraiki zutenean.



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia





AZTIren bigarren txostena eta ministerioaren argi berdea

Muskizko Udalak Cearretaren azterketan oinarritu zituen Portuaren egitasmoari egindako alegazioak. Honezkero aipatu denez, ez ziren alegazio bakarrak izan. Azkenik, Madrilgo Kalitate eta Ingurumen Ebaluazio Zuzendaritzak informazio gehigarria eskatu zuen, eta hala, iazko urrian Portu Agintaritzak beste txosten bat egiteko eskatu zion AZTIri. Bai hark egin ere. Bi txostenak aztertu eta gero, eta arestian esan dugunez, bere aldeko Ingurumen Inpaktu Adierazpena jaso du Portu Agintaritzak.

Ekainetik ari dira proiektuaren aurka daudenak AZTIren bigarren txosten hori eskatzen, baina ez dute oraintsu arte beren helburua lortu. Alta, Portu Agintaritzak ARGIAri helarazi dion idatzian txosten horri buruzko aipamenak aurkitu daitezke: “Ondorioak erabatekoak dira: agente kutsatzaileen kopurua zeharo murrizten da 25 zentimetrotik beheragoko sakoneran. Horrek agerian uzten du azaleko geruzetako leku oso zehatzetan baino ez dagoela kontuan hartzeko moduko kutsadura”. Bigarren txostena osorik aztertze-ko betarik ez du izan Alejandro Cearretak, baina bere iritzia eman digu Portuak emandako erantzunaz. Hain segur, aipatu berri dugun esaldia da, EHUKo irakaslearen ustez, lehenbiziko txostenarekiko berritasun esanguratsu bakarra. “Dena den, kutsatzaileak 25 zentimetrorik behera gutxitzen direla esatea ez da nahikoa, informazio orokorre-gia da”.

“Zazpi milioi tona material kutsatu barreiatuko dituzte”

Euskal itsasertzak inoiz jasan duen erasorik handiena, hala definitzen du Abra Bizirik plataformak dragatze proiektua. Auzokide ekologis-tak, auzokide elkarteak, herritar soilak... bildu dira Abra Biziriken, euren ustez ingurumenari kalte handia egingo dion egitasmoa salatzeko.

“AZTIren bigarren txostenak lehendik geneukan kezka areagotu baino ez du egin”, diosku Kike Prada plataformako kide getxoztarrak. Txostena arretaz irakurri du Pradak, eta ondorio larrietara iritsi da: “Eurek emandako datuetan oinarrituta —eta errealitatea bestelakoa izatekotan, okerrera baizik ezin dezake egin—, esan daiteke zazpi milioi tona material fin [lokatz eta buztin] barreiatuko dituztela itsasoan, eta ondorioz elikadura-katean. Material horiexetan pilatzen da-eta kutsadura”.

**Abra Bizirik
plataformaren ustez,
dragatzea euskal
kostaldeari inoiz
egindako erasorik
handiena izan daiteke**

AZTIk egin zuen lehen txosten-ean irakur daitekeenez, 2008an material finen portzentajea %2 eta %5 artekoa zen dragatzea egin nahi duten eremuan. Aldiz, bigarren txos-

Ereagako hondartza, Algortan. Aurreikusita dago bertara iristen diren olatuen energia %15-20 artean gutxituko dela, baina ez dago argi nola eragingo lioketen dragatze lanek.

tenaren arabera ehuneko horiek dezente handiagoak ziren lau urte geroago: %9 eta %20 artean. Igoera hori oso kezkarria da Pradaren ustez. Gogoratu, lehen esan dugunez, material horietan dagoela aukera gehien substantzia kutsagarriak pila-tzeko.

“Beraiek esana da materialaren %8-10 inguru dagoela kutsatuta, eta hori gutxi dela. Baina 49 milioi metro kuboren %8 lau milioi inguru dira, eta tonetan, zazpi inguru”, dio Pradak. Bestalde, AZTIk berak egindako simulazioen arabera, baldintza txarre-netan material horiek 90 kilometro koadrotan sakabanatu daitezke. “Uste dugu arrazoi nahikoak direla proiektua bertan behera uzteko”.

Mozioak udaletan

Eskualdeko udaletara ere jo dute, Bil-duren bitartez Portu Agintaritzaren asmoak gelditzeko eskatzen duten mozioak aurkeztuz. Momentuz, Uribe Kostako udal bitan, Sopelan eta Plentzian, onartu dute mozioa. Bigarren-ean, askoren harridura era-gin duen EAJren aldeko boto eta guzti —orobat Portu Agintaritzaren antzeko diskurtsoa erabili dute, ezta-baida honetan, jeltzaleek—.

Protestak protesta, legearen ikus-puntutik oso zaila izango da proiektua geldiaraztea, izena ezkutuan gorde nahi duen militante ekologista batek esan digunez. Are gehiago Estatuko Abokatuak aferan esku hartu zuenetik. Hasieran, zalantza zegoen dragatzea Kosta Legearen aurkakoa ote zitekeen —artikulu batek dio hondar erazte lanik ezin dela egin hondartzak berres-kuratzeko ez bada—. Abokatuak bide hori itxi zuen, auziak Kosta Legearekin zerikusirik ez zuela esanez, eta orain, epaitegietako bidea erabili nahi duenak itxaron beharko du, lan-baimenak eman

arte ezin izango baita helegiterik aurkeztu. Susmoa dugu horiek ere tiradera baten hondora joango direla. ■



«Enpresek frogatu dute euskaraz egin daitekeela»

Ainhoa Elices (Donostia, 1972) Emun kooperatibako marketin arduraduna da. Lan mundua euskalduntzea helburu zuen enpresak gero eta zerbitzu abaniko zabalagoa du. Gizartearen behar berriei erantzun nahi die.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

Lan mundua euskalduntzeko kooperatibari izen berria gehitu diozue: Euskara eta berrikuntza soziala. Zergatik halako aldaketa?

Emunen sorreratik, gure misioa lan mundua euskalduntzea izan da, eta hortik abiatuta, gizarteko hainbat alor euskalduntzeko lanetan ere bagabiltza. Beti gizartera begirako lanetan jardun dugu. Enpresekin, udalekin, foru aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta bestelako administrazioekin egiten dugu lan. Oro har, langileekin eta herritarrekin egiten dugu lan eta konturatu ginen haiekin euskararen normalizazioan lana egiterakoan hainbat gai gurutatu egiten zirela. Adibidez, udal batekin ari ginela, pentsatu behar genuen nola erakarri euskarara jatorri desberdinetako jendea, aztertu behar genuen herri horretako kultur eskaintza nolakoa zen...

Behar berriei erantzun berriak.

Ase beharreko eskakizunak sumatu ditugu. Gaur egun Emun ez da euskara normalizatzeko erakundea bakarrik, gizarte hobeagoa lortzeko bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu. Horien guztien txapela berrikuntza soziala da eta horren banean dira kultura, aniztasuna eta parte-hartzea. Euskara eta euskal kultura guztiaren ardatza dira, eta elkarbizitzarako elementu kohesionatzaile gisa ulertzen ditugu.

Kultur zerbitzuak eskaintzen dituzue la diozunean zer esan nahi duzu?



“Uste dugu badagoela beharra aztertzeke zein motatako kultura jasotzen duten herritarrek”.

Kultura norberaren eta gizartearen nortasunaren elementu garrantzitsua da. Zein kultura arnasten duzun nortasuna era batekoa edo bestekoa izango da. Adibidez, kultur programatzaileek zer aukeratzen duten (filmak, musika...) herritarrek halako edo bestelako kultura izateko aukera gehiago dago. Kultur programazioak, azken finean, kultura orokorren isla dira eta horri arreta jarri behar zaiolakoan gaude. Uste dugu badagoela beharra aztertzeke zein motatako kultura jaso-

tzen duten herritarrek. Gure kultura sendo edukitzeko hausnarketa egin behar dugu.

Gehiegi hausnartu eta aztertu gabe ko programazioak egiten al dira?

Inertziak jokatzen da askotan, hausnarketarik gabe. Ez naiz ari udaleko kultur teknikariak egin beharreko hausnarketaz, baizik eta udalerriko administrazio ordezkariak, kultura eragileak, programatzaileak eta herritarrek egin beharrekoaz.



Aniztasuna da zuen beste zerbitzu lerroa.

Ezin dugu pentsatu gizartean euskara, gaztelania eta frantsesa bakarrik ditugunik. Oso kultura eta jatorri desberdinetako jendea gaude. Elkarren arteko kulturekiko zubiak eraiki beharko genituzke baina bizikidetzarako eredu propioa eraiki beharko genuke eta eredu horretan euskarak eta euskal kulturak ardatz izan beharko lukete. Aniztasuna kontzienteki kudeatu beharko luke administrazioak, eta ez bide paraleloetan, bertako jatorrikoak ate honetatik eta beste jatorrietakoak beste ate horretatik.

Txapel azpian gorde duzuen beste burua parte-hartzea da.

Gure lan metodologian barneratuta dago parte-hartzea. Enpresetako langileekin, herritarrekin, horrela egiten dugu lan. Mota askotako beharrak ezagutu ditugu, hala nola, gazte lokalen eta bizilagunen arteko gatazkak kudeatzea, kultur egitasmo bat bideratzea, udalerriko aurrekontuak egitea, euskara biziberrietzeko urratsak ematea...

Bezeroak desberdinak al dira orain?

Bezeroa aldatu baino bezero beraren behar berriei erantzuten ari gara.

Adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundian, Euskara Zerbitzuaz gain, aniztasun eta kultura alorretan ari gara orain lanean. Udalei berriz, hizkuntza zerbitzuez gain, orain kultura, aniztasuna eta parte-hartze zerbitzuak eskaintzen dizkiegu. Zerbitzuok ez ditugu modu isolatuan eskaintzen. Behar orokorrak zeintzuk diren identifikatu eta sailen artean transbertsalki lantzen ditugu.

Esan dezakegu Emunen zerbitzu berriek gaina hartu diotela lan mundua euskalduntzearen misioari?

Ez. Urteak beharko dira lan munduak daukan pisua besteek hartzeko. Lan munduan eta gizartean euskarak bere lekua izatea gure motorra da, gure bihotza.

Marka berria aurkezteko Fagor eta Irizar bezeroak gonbidatu zenituzten.

Fagorrekin Emunen sorreratik gabiltza lanean, gure kontseilu errektoreko bazkidea da. Proiektu asko ditugu Fagorrekin. Bestalde, gure gestio ereduaren eta filosofia- ren zati handi bat Fagor eta kooperatiba mundutik dator. Urte askotako ibilbidea ere irudikatu nahi genuen, enpresa erreferentziala da. Irizarrekin berriz, duela urte gutxi hasi ginen lanean, baina harremana oso estua eta oparoa izaten ari da.

Erakutsi nahi genuen bidea ez duela Emunek bakarrik egiten, bezeroak dira erdigunea. Enpresa horiek badute zeresana gizartean, badute prestigioa euskal gizartean. Euskara normalizatzeko plangintzek zein onura dituzten haien ahotik entzun nahi genuen, zergatik egin duten hainbeste urtetan eta zergatik jarraituko duten.

1997an hasi zineten lan mundua euskalduntzen. Zein da egoera gaur egun?

Ezin daiteke esan zerotik abiatu ginela eta orain %70ean gaudela. Enpresa motak daude, langile motak ere bai, kokapen diferenteko enpresak. Baditugu Gasteizen bezeroak, baina baita Lea-Artibain ere. Eskualde bien arteko ezberdintasun soziolinguistikoa nabarmena da eta Emunentzat, enpresa horietan eragiteko modua ere bai, noski.

Balorazio orokorra egitekotan esango nuke euskara planak abian jarri zirenean lan mundua euskalduntzearen alorra azkeneko bagoian zegoela, edo oraindik bagoira igotzeko. Gaur egun ez dago azkeneko bagoian. Botila, gutxienez, erdiraino beteta ikusten dugu. Labur esateko honelako ibilbidea izan du: hasierako esana zen “euskaraz zerbait egotea ederki legoke”, gero poliki-poliki lortu dugu euskaraz ere egotea, eta orain ondokoa esan ohi dugu, “euskaraz behintzat badago”.

Enpresek lortu al dute prestigioa eta erreferentzialtasuna?

Egiten dira gauzak, baina askoz gehiago sozializatu behar dugu, gizartea gehiago sentsibilizatu behar dugu. Enpresek frogatu dute euskaraz egin daitekeela. Adibideak egon badaude eta horiek baliatu behar dira.

Urte hauetako zein lorpen azpimarratuko zenituzke?

Lau ardatz hartzen ditugu kontuan: motibazioa, ezagutza, erabiler a eta erakundetzea. Motibazioari dagokionez, hasieran ekintza solteak egiten ziren eta gaur egun prozesu bezala ulertzen da. Ezagutzari buruz ari bagara enpresa askotan lanpostu bakoitzerako hizkuntza eskakizunak finkatu dira langileak kontratatzeke edo barne promoziorako, eta norberak lortu beharreko mailaren arabera euskara eskolak eta bestelako baliabideak jarri dira. Duela urte batzuk pentsaezina zen. Ahozkoan, idatzizkoan, webguneetan, zuzendari-



tza mailako bileretan ere euskara erabiltzen da. Gaur egun normala iruditzen zaigu, baina oraindik leku askotan erdaraz ari dira. Bestalde, hainbat enpresa eta erakunde hasiak dira haien hornitzaileei zerbitzua euskaraz eskatzen. Hornitzaileek moldatu beharra daukate. Nik baino exijitzen ez badut ez dauka agian indarririk, baina horrek eta horrek zerbitzua euskaraz eskatuta, igoal hasi behar dute zerbitzua ematen. Erakundetzeari dagokionez, euskara enpresan ohiko dinamikan sartu da, elementu estrategiko bezala lantzen da.

Borondatez egiten dira euskara planak.

Ez dago legerik enpresetako euskara erabilera arautzen duenik. Mugimendu batzuk egon dira, baina ez dago araututa derrigor hau eta hori egin behar dela. Borondatezkoak diren gauzekin urratsak ematen dira, kontsentsu bidez egiten ditugu, baina derriortuta balego gauzak azkarrago lortuko lirateke. Dena den, aitortu beharra dago, enpresa eta langile

“Enpresa askotan lanpostu bakoitzerako hizkuntza eskakizunak finkatu dira. Duela urte batzuk pentsaezina zen”

askoren borondateak mugarik ez duela.

Borondatea epeldu al da?

Krisia hasi zenetik, nahiz eta gaizki egon, enpresa dezentek eutsi diote euskara planari. Egin dituzten murrizketak eta egokitzapenak egoera ekonomikoagatik izan dira eta ez erabaki dutelako hemendik aurrera hizkuntza irizpideak ez aplikatzea. Euskara planen atzean dirulaguntzak ere badaude. Murrizketek kontrako efektua daukate: enpresa egoera ekonomiko kaskarrean badago eta gainera laguntzarik ez badauka... Administrazioak kontuz ibili behar du eta kontuan hartu

behar du lan mundua ere estrategikoa dela.

Dena dela, garai batean, euskara planak sortu zirenean, baziren pertsona batzuk oso motibatuak, oso eragileak. Orain ere badira hasieran zeudenak, baina berriz ere berrindartu egin behar dira. Bestetik, eskolatik eta unibertsitatetik datozenak badakite euskara, eta aldiz, erabilera ez daukate parekoa. Haiengan ere eragin behar da. Era berean enpresek erakutsi behar diete euskaraz lan egin behar dutela eta egin dezaketela. Beraz, enpresak ere indartu behar ditugu hori eskatzeko.

Belaunaldi berrietan sentsibilizazioak behera egin al du bada?

Sentsibilizazio baxuarekin dator jendea, gizarteari begiratu besterik ez dago. Lan mundua ez da kaiola. Hasieran beste egoera bat sortu zen, oso motibatuta zeuden. Gaur egun, nahiz eta euskaldunak izan, ez daude horren motibatuta. ■



EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SELORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkoa. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

Porrota eta itxaropena

Finantzen munduak sortu zuen krisialdia ekonomia errealerara pasa zen eta enbata bailitzan atzean hildako edo elbarriak besterik ez da uzten ari. Uste genuen euskal ekonomiak arin samar pasako zuela egoera hau, baina beranduago izan arren, ondorio larriak jadanik pairatzen ari da. Orain Fagor kooperatiba erraldoiaren gain erori da krisiaren zama.

| BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI |

BAINA ZER GERTATU ZAIO Fagor elektrotresna kooperatibari? Mondragon taldearen antzera Fagorrek etengabe hazteko nahiak jarri du kinka larrian. Pentsatu da bizirauteko derrigorrez hazi egin behar dela eta lehia bizian sartu zen bere sektoreko enpresa erraldoiekin. Antzeko zerbait gertatu zaio Eroskiri ere eta egin zituen inbertsio asko eta asko desinbertitzen ari da, handi izateak ez baitu ziurtatzen bizirauteko indarra izango duenik.

Fagorren inbertsio erraldoi horien artean Frantziako Brandt enpresa erostea izan zen eta estu eta larri dabil irteerak aurkitu nahian. Inbertsio erraldoiak ere egin ditu Txinan, Polonian Marokon eta beste hainbat herrialdetan. Azken finean, neurritz haratago hazteko estrategiak itoarazi egin du kooperatiba.

Fagor Elektrotresnak merkatura mehartuta irtengo da berregituraketa gogorra burutu ostean. Merkaturtik produktu asko erretiratu beharko ditu lehiakorra izan nahi badu. Bien bitartean, pozik geratuko dira Fagorrek galdutako merkatuaren zatia eskuratuko duten multinazionalak. Batzuentzat sufrikarioa, besteentzat poza izango den bitartean.

Honen guztiaren ondorioz 1.700 bazkide eta kontratupeko langile kalean geratuko dira. Horietatik batzuk erretreta hartuko dute, bazkide diren 1.000 inguru Mondragon taldeko beste kooperatibetan koka-



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Fagor Elektrotresnak merkatura mehartuta irtengo da berregituraketa gogorra burutu ostean.

tzen saiatuko dira eta beste batzuk langabeziara joango dira, langabetuen kopuruak oraindik gorago egingo duen bitartean. Hainbestetan azpimarratu izan dugun mitoa erabat hutsala bihurtuko da: kooperatibek ez dute langabeturik sortzen. Hemendik aurrera hori ezin izango dugu aitortu.

Eta erantzulerik ba al dago? Noski egon badaudela. Izan ere, aspaldi hasi ziren esaten Espainiako eraikuntzan ematen ari zen fenomenoak burbuilaren usaina zuela; guztiau duela hamar bat urte argitaratu zuen *The Economist* astekariak eta beste hainbat aldizkarik. Baina nola jaramon egin dirua esportaka



Juan Mari Arregi

♦ EKONOMIA KAZETARIA

Fagor eta alboko eraginak

MONDRAGON TALDEKO Fagor Etxetresnak ordainketak eten eta kiebra jo dezake lau hilabete baino lehen egoera finantzario oso larria konpontzen ez badu. Banku hartzekodunek neurri soziolaboral drastikoak exijituko dituzte Fagor finantzatzeko. Berehalakoan, langileak langabezian geratuko dira. Munduko lehiakideen artean txoko bat egiteko inbertsio zalantzarriak egin zituen kooperatibak, baina krisiak eraikuntza eta kontsumoa murriztu ditu eta horren ondorioz zor handia pilatu du. Egoera horri aurre egiteko ahaleginak ez dira nahikoa izan. Bankuek ez dute bihotzik enpresa txikiekin eta bazterrean uzten dituzte; baina orain enpresa ikur batekin ausartu dira, eta badirudi zalantzak dituztela Fagor finantzatzeko segitzeko.

Kooperatiba hondotik ateratzeko lanean ari diren eragileek kontuan eduki beharko lukete ordainketen etenaldiak edo kiebrak zein alboko eragin izango duen langileengan -5.642 langile munduan barrena ezarritako 13 lantegitan, horietako 1.800 euskaldunak-, bazkideengan, kapital ekarpena egin duten

milaka pertsonengan, enpresa hornitzaile ugaritan, eta Arrasate inguruko zerbitzuetan.

Mondragon Korporazioak ardura handia dauka bere langile eta bazkideekiko, baita euskal jendartearekiko ere. Lehenbailehen argitu beharko luke Fagorren egoera, gestio erantzukizunak baleude, horiek

garbitu beharko lituzke, eta Fagorren eta talde osoaren etorkizuna zehaztu beharko luke. Zeren eta Eroskiren egoera, adibidez, ez da oso lasaigarria; honek ere inbertsio handiak egin zituen eta orain oso zorpetuta dago. Bai Fagorrek bai Eroskik, euren langile eta bazkideekiko ardura izateaz gain, beste milaka pertsonari ere azalpenak eman behar dizkiete, ehunka milioi

MCCk Fagorren eta talde osoaren etorkizuna zehaztu beharko luke. Zeren eta Eroskiren egoera, adibidez, ez da oso lasaigarria

euro jarri baitzituzten enpresa horien mantenu eta garapenerako. Inbertsio hori -menpeko ekarpenak- jadanik oso txarto dago, baina erabat galduko litzateke ordainketen etenaldia- rekin edo kiebrarekin. Fagor hondotik ateratzea enpresa bat salbatzea baino askoz gehiago litzateke. ■



enpresetako kutxetan sartzen ari zen bitartean? Kontrol neurri eta balio handiagoko ondasunak bilatu orde, ekoizpen hedakorrari jarraitu zitzaion, Espainiako etxebizitzaren eraikuntza bertan behera geratu arte. Hortik datoz Fagorren gaurko komeriak.

Estrategia oker hori bideratzeko asmoarekin Mondragon taldeko erakundeek eta bazkideek 70 milioi euroko dirua utzi zioten Fagorri duela sei bat hilabete, baina ez du ezertarako balio izan. Beranduegi zen erratutako estrategia birbideratzeko. Orain, berriro saiatu dira Mondragon taldeko dirua eskuratzen, baina talde osoa kinka larrian sartu baino lehenago ukatu egin zaio diru laguntza berri hori. Hortik berregituraketaren

premia eta aipatu ondorio mingarriak.

Jakina da edozein giza erakundetan agintari talde bat eratzen dela, teknostruktura deritzana, eta talde horrek bereganatzen du enpresako erabakigune oro. Eta arazo honen guztiaren erdian talde

Egoera honen aurrean, espero dut kooperatibako bazkideek inoiz utzi behar ez zuten autokudeaketarako eskumena erabiliko dutela

agintari hori azaltzen zaigu eta oraindik ez dirudi kontuak eskatu-ko zaizkionik. Duela urte batzuk

talde agintari horren boterea orekatzeko Gizarte Kontseilua erantzule izatera heldu zen, baina eszenatik desagertu zen edo zuten, eta oztopo gutxiarekin jarraitu ahal izan zuen inbertsio erraldoiak gauzatzeko, teknostruktura ororen jokaeraren ezaugarria hori baita: botere politiko ekonomikoa areagotzea.

Egoera honen aurrean, espero dut kooperatibako bazkideek esku hartuko dutela beraien interesak bideratu ahal izateko, kooperatibista gisa inoiz utzi behar ez zuten autokudeaketara-

ko eskumena erabiliko dutela, Fagor berriro bideragarri izatera heltzeko. ■



Langileentzat eta enpresarentzat bideragarritasun bila

Mondragon Korporazioa, hartzekodunak eta Jaurilaritza ageri dira Fagor Etxekotresnen krisia bideratzeko agente gisa. Lanik gabe geratu direnei laguntzeko moduan dira kooperatiben taldeko elkartasun mekanismoak. Hartzekodunen jarrerak eta Jaurilaritzarenak berriz, enpresaren etorkizuna nolakoa izango den zedarrituko dute.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

LURRIKARAREN ONDOREN, taldearen erantzuna. Fagor Etxetresnen kinka larria albiste bihurtu denetik Mondragon Korporazioak (MCC) lasaitasun mezuak igorri ditu. Kooperatibismoan daukan konfiantza berretsi zuen joan den astean publiko egindako agiri ofizial batean eta, horrekin batera, taldearen ezaugarri ekonomiko nagusiak laburbildu zituen: EAEko Barne Produktu Gordinaren %3,2 ekoizten du, %7,4 industria alorreko BPGri dagokionez. EAEko enplegu guztiaren %3,5 Mondragon kooperatibei dagokie, horren barruan industria enpleguaren %8,4.

Gihar horrekin egingo zaio aurre Fagor Etxetresnen krisiaren alderdi pertsonalari. MCCk azpimarratu du taldeko enpresek badauzkatela zenbait elkartasun mekanismo eta horiek berebiziko garrantzia hartuko dute lanik gabe geratuko direnen kasuan. MCCren agiri horrekin paraleloan, Lagun Arok jakinarazi du 35 milioi eurotik gorako saldoa daukala enplegu prestazioetarako. Kopuru horrekin eta bildu beharreko kuotekin –igo egingo zaizkie gaintzeko enpresetako kideei–, Fagorreko kooperatibisten prestazioei erantzun ahaliko zaie.

Goienak joan den astean argitaratu zuenez, langileen egoerari aurre egiteko aurre-erretiroak eta birkokapenak eskaini nahi ditu Korporazioak eta horiek bideratzeko enplegu bulegoa sortuko du. MCCk ez du zehaztu zenbat langile geratuko diren egoera horretan, hau da, zenbat aurre-erretiro edo



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Ezinegonaren aurrean MCCk kooperatibismoan konfiantza eta talde barruko elkartasun mekanismoak nabarmendu ditu.

zenbat birkokapen egin beharko diren.

Adrian Zelaia Ekai Center ikerkuntza zentroko kide eta EBko Industria Eraldaketarako Aholku Batzordeko partaideak *Goienan* bertan azaldu zuen zeintzuk diren Fagorrek aurrean dituen bi erronkak: “Negozioa zatitzea eta jarduera batzuk bideragarriak egitea” lehenbizi; eta bigarren, ez garrantzi gutxiagorekin, “hartzekodunak kontentzitatez hobe dela negozio horien bideragarritasuna ailegatzea”.

Jaurilaritzaren laguntza “zorrotza”

Korporazioaz eta hartzekodunetz gain, erakunde publikoek jokatu

duten rolak garrantzi berezia dauka Arrasateko enpresaren itoaldiari emango zaion erantzunean. Arantza Tapia Eusko Jaurilaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailburuak astelehenean adierazi zuen gobernu autonomikoa Fagor laguntzeko prest dagoela, bideragarritasun plan “oso zorrotz” batekin, era berean “malgua” izango dena.

Tapiaren arabera, enpresaren berregituraketa aukerak aztertu behar dira “ahalik eta enplegu gehienari” eutsiz. Sailburuak Fagor Etxetresnen gobernatze-ko era berrikusteaz ere hitz egin zuen laguntza agintzearekin batera. ■



Seaskak bide judizialari eta karrikako mobilizazioei helduko die Falloux legearen aurka

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



Uztaillean, Seaskako hainbat ordezkariak François Hollande Frantziako presidentearen PS alderdiaren egoitza okupatu zuten Baionan.

FRANTZIAKO GOBERNUAK berean segitzen du. Seaskari ez dio arnasarik hartzen utzi nahi. Azken bilkuran prefetak eta suprefetak adierazi zuten Falloux legea zorrotz baliatuko dutela, hau da, herriko etxeen baimena izanda ere, Seaskak ezingo ditu ikastolak jaso edo handitu eremu publikoan eta herriko etxeek zoru publikorik ezingo diote utzi eraikinak altxatzeko. Seaskak legea urratzen badu auzitara eramango du administrazioak.

Jarrera horren jakitun, Seaskaren ustez egoera larria da. Azkenaldian lehen lerrora ekarri diren bi adibideak Hendaiaiko eta Beskoitzeko ikastolarenak dira. Lehenengoari ez diote uzten eraikina handitzen eta bigarrenari lur publikoa merkaturako prezioan alokatzen ez diote utzi. Bi ikastolak baino, ia hogeik izango lukete antzeko arazoren bat, herriko etxeek utzitako eraikinetan edo lurretan ari direlako eskolak ematen. Denak dira arriskuan Frantziako Gobernuak jarrera aldatu eta

Falloux legea bertan behera uztea erabakitzen ez badu. Seaskaren iritziz, oso erraza da berriz ere Hendaiaiko eta Beskoitzeko egoerak errepikatzea, nahikoa delako hautesiren baten salaketa suprefetaren eskuetara heltzea.

Egoera larriari aurre egiteko bi borroka lerro abiatuko dituzte; batetik, Frantzian eta nazioartean salaketaren bidetari helduko diote, eta bestetik, karrikara aterako dira. Seaskaren iritziz, Falloux legeak berdintasun eskubidea urratzen du, alegia, hezkuntzako bigarren mailan lokal publikoa erabil daiteke, lehen mailan aldiz ez. Besteak beste, Auzitegi Konstituzionalera jotzea aztertzen ari da.

Karrikara begira, azaroaren 30ean Baterak antolatutako manifestaldiarekin bat egingo du Seaskak. Abenduaren 28 eta 29an berriz, festa aldarrikatzalea antolatuko dute Baionan. Talotei handi bat prestatzeko asmotan dira, jai giroan errebindikazioari indar emateko.

Elgoibarko IMHn enpresetako euskararen kudeaketaz

ELGOIBARKO Makina Erreminta Institutuak 8. aldiz antolatuko ditu *30+10 mintegia* izeneko jardunaldiak. Euskarak lan munduan hartzen duen lekuaz arituko dira, urtero bezala. Ondoko esparruetan aztertu eta hausnartuko dute euskararen presentzia: Lanbide Heziketa (Gehitu proiektua), Gasteizko merkataritza, ahozko erabilera, ingurune eleantitzean sarean ditugun tresnak, euskal enpresek atzerrian hizkuntza kudeaketa nola egiten duten, eta marka gisa euskalduntasuna erabiltzeak sortu ditzakeen aukerak.

Elgoibarko IMHk urriaren 23ko jardunaldiei begira idatzitako iritzi artikuluan esanak:

"Biztanleen %20 dira txinatarrek San Francisco hirian. Dendaz beteriko auzoa dute, eskolak, elizak... Eremua zabaltzen ari dira oraindik. Hizkuntza ofiziala ez bada ere, atez ate zaborra biltzen duten kamioietan eta garraio publiko batzuetan errotuluak eta megafoniaz ematen diren oharrak hizkuntza horretan ere dira.

'E'k presentzia horren zergatiak galdetu dio. 'M'k ere hala egin zuen, eta begiruneagatik baino, pisu ekonomikoagatik dela erantzun zioten. Beraz, 'M'ri gogora etorri zaio komunitate bateko kideek dirua non eman erabakitzen duten neurrian, ingurunea eragin eta alda dezaketela.

'E'ren ustez, gurean ere hala izan da. Ikastolak, euskaltegiak... komunitateak jakin du behar zuena sortzen. Bestelako produktu eta zerbitzuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 2011 urtean egindako *V. Inkesta soziolinguistikoa*ren emaitzen arabera 16 urtetik gorako 2.649.000 pertsonetatik 714.000 elebidunak dira eta 388.000 elebidun hartzaileak. Gutxienez, milioi bat bezero potentzial dituzte enpresek 20.000 Km² baino ez dituen eremuan. Agian, ez zaio palanka horri behar beste eragin, baina enpresa batzuek jakin dute baliatzen elikadura, jantzigintza, finantza-etxeak, telefonia... arloetan".

Xabier Letona



DANI BLANCO

Fagor, erpin ugari eta mingarriak

KOLPE latza izan da Fagor Etxe-tresnetakoa (aurrerantzean FagorE), alde askotatik ikusita eta ez bakarrik Debagoienan. Gaia gertutik jarraitzen zutenentzat azkenean gertatu beharrekoa gauzatu da eta urrutiagotik segitzen zutenentzat arazoa nekez bilaka zitekeen porrot, Fagor Fagor delako. Baina heldu da porrota.

Orain, hilabete gutxitan ikusiko da zer gertatuko den atzerriko enpresekin eta bertakoekin. Baina seguruenik ondorioak latzak izango dira atzerriko langileentzat eta hornitzaile sare handiarentzat, milaka lanposturen galera mahai gainean da. Eta bitartean, gertatutakoaren iritziak erreka lasterrean behera doaz erantzun bila, erantzukizunak argitzeko eta baita etorkizunean akats berberetan ez erortzeko. Erpinak ugari eta zorrotzak dira, mingarriak, baina arakatu beharrekoak.

Sentsazio kontrajarri ugari dira Arrasaten. Egoeraren gogortasunaren erdian, gainerako kooperatibetan ez dira gutxi pozten direnak behingoz hondoa ukitu delako, egoera oso aspaldikoa delako, elkartasunaren izenean FagorE-k diru asko irentsi duelako azken urte luzetan, adabaki-konponbideak hartzen ari zirelako eta berandu baino lehen zezenari adarretatik heltzea zelako onena. Orain gauzatu da hori. Krisia aukera den ikuspegia.

Zergatik gertatu da? 2005ean Brandt erosi zuen FagorE-ko zuzendaritzari leporatu zaio nagusiki oraingo porrota. Bera baino handiagoa zen lehiakidea erosi zuen, Europako handienekin lehiatu ahal izateko. Orduan operazioa bideratu zuena Txema Gisasola izan zen, gaur egun Mon-

dragon Korporazioko Kontseilu Orokorreko lehendakaria.

Baina bada pentsatzen duenik FagorE-k ongi egin zuela eta ez zuela beste biderik, lehiak agindutako handitzea baino, bestela ez zuela etorkizunik. Eta erabakiari dagokionez, Gisasolak bideratu zuen, baina Fagorreko Kontseilu Errektoreak –zuzendaritza organu gorena– onartuta eta, azkenik, kooperatibako bazkideen batzarrek ere onartuta. Beraz, hondamendi honetan izango al zuen eraginik azken 10 urteetan hainbeste hitz egin den bazkideen espiritu kooperatiboaren galarak?

Argudia liteke teknoegituraren indarraren aurrean bazkideek zeresan gutxi dutela halako kooperatiba handi batean, eta hala egiten duenari ez zaio arrazoirik faltako. Baina zein neurritan da balekoa teknokraziaren arrazoiak? Beste kooperatiba handi batzuetan ere bai? Eta oraingoz denetarako erantzunak daude, badirelako Fagor Arrasate, Fagor Ederlan edota Fagor Copreci moduko kooperatiba handiak, beren handitzea arrakastaz daramatena. Nork esango die, adibidez, hiru kooperatiba hauei handitzearen estrategia haien ilobi bilakatuko dela?

Baina argudioa ez da txantxetako eta horren adibide da handitzearen estrategian harrapatuta geratu den Eroski. Beraz, noraino handitu behar da, noraino ez? Baina, handitzean dago gako nagusia edo egungo krisiaren ezaugarrietan? FagorE-n kasuan argi da etxegintzaren burbuilaren eztanda giltzarri izan dela bere gainbeheran. Eroskiren kasuan, kontsumoaren beherakadak eragin itzela duen moduan. Azken finean, bi faktore horiek bat egin dute Fagorren kasuan, erabaki gaitz eta

korapilatsuari –Brandt– krisia etorri zaio gainera.

Nazioarteratzea eta handitzearenak ez dira atzo gaueko zalan-tzak. 1999an LARRUNerako egin-dako mahainguruan zera zioen Jose Maria Ormaetxeak, Fagorre-ko fundatzaileetakoak: “Esperien-tzia kooperatiboaren distortsiorik handiena internazionalizaziotik etor liteke”. 2006an, halaber, hala-koa jaurti zuen prentsan orduko MCCko lehendakari Jesus Cata-niak: “Zalantzak ditut eredu koo-peratiboa mantendu ahal izango den herrialde, kultura eta interes desberdinak dituzten ia 100.000 pertsonako korporazioan”.

Oraingoz bistan da baietz, eutsi dio, arrakastaz gainera, baina horrek guztiak prezio bat izango du eta, oraingoz, ordainetako bat FagorE-n gertatutakoa da.


PAROT DOKTRINA atzera bota dela da lerro hauek idazteko orduan Estrasburgotik iritsi den albiste. Sutan sareak, sutan hedabideak eta sutan Espainiako Gobernuak, erabakiak epe laburrean 60tik gora preso askatzera behartzen dituelako. Eta ebazpenaren aurreko asteak nola joan diren ikusita, ez dago zalantzarik askatu egin beharko dituela. Noiz eta nola da ikusgai dagoena, baina ez beteko duenik. Ez du beste aukerarik.

“Dena da ETA” eta Parot doktrinak izan dira Espainiak ENA-Men aurka sortu zituen tresna gogor eta antidemokratikoenak. Behin hauek deseginda, espero izatekoa da, bake prozesua ere beste abiada bat hartzeko gisan dagoela. Gaur egun handia da euskal gizartearen normalizazioaren bidean. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia



Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1

Ekainberri

Ekain berri



3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3

Bide ertzean



77

6 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4

Badakit



2 mahai jolas

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2386. Argia)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Legazpi

- Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Bermeo)
- Olaia Elortza Iñarra (Zegama)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)
- Sabin Arenaza Alvarez (Bilbo)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
- Mila Apeztexea Loiarde (Hernani)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

EKAINBERRI

- Iker Elozegi (Hazparne)
- Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)

OKATXU kamiseta

- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com